

## ERRONDA-KANTUAK ETA ESKE-BERTSOAK

*Jabier Kaltzakorta (\*)*

### SARRERA

J. A. Mogelek *Peru Abarca* idatzi zuenetik hona edo gaurrera bi mende bete direla eta, erronda-kantuen gainean hitzaldi bat eskatu didate herri-literatura batzordeko neure adiskideek. Ezin esan ezetzik, inola ere. Ezer baldin bainaiz, koplak zaharren maitale sutua naiz. Ume umetatik etxean eta Markina inguruko baserri-atari aurreetan bizi izandako oroitzapen ezin ederragoak ekartzen dizkidate gizon-aldrek kantatzen dituzten koplek. Etxean esan dut, etxean bertan geneukalako, gainera, Markinalde inguruko koplalaririk entzune-netakoa: geure aita zena. Etxean bertan geneukan, gainera, esku-txilin handi-galant bat, makila-muturretan jarri ohi dena baino askoz handiagoa. Esku-txilin handi hori erronda-eskean ez zuen normahik jotzen, esku-txilin handi hori koplari nagusiari zegokion, eta koplari nagusi hori ez zen besterik geure aita maitea baino. Etxean bertan kantatu ohi zizkigun gure aitak gaztetan ikasi eta berak ere asmatutako eske-koplak. Nik beti miraz eta irrikaz entzun ohi nizkion neure aitari ahots ederrez garantzen zituen koplak zoragarriak. Etxean bertan entzuten genuen koplak sailak hirurogeita hamar koplak baino gehiago zituen, eta geroago ikusiko dugunez, ordena jakin batean kantatzen ziren. Horrelako gomutak eta askoz gehiago osatzen dute nire barrundegiko kutxa. Eta, beharbada, era horretako barne-gomutarik ez baneuka, ez nuke koplak zaharrak bildu eta ikertzeari denborarik eskeiniko.

Nire lantxo honek bere muga jakinak ditu. Mugak, gainera, estu-meharrak, aldizkari bateko artikulua bati dagozkionak. Gaia zabalegia bezain sakonegia bada, nondik heldu? Koplak bildumak asko badira, nola egin aukera on bat? Koplak mundua aztertu duten ikerlari guztien lanak eta ondorioak nola laburbildu? Koplak bildumen gainean, eta koplak aztertzaileen berri ematen duten lantxo bat badut. Lan hori «Santa Ageda koplak gerra aurreko txapelketak» *Karmel*, 239 zenbakia, 2002-3 Uztaila-Iraila, 3-26 or. Han esaten ditudan ez ditut lan honetara ekarriko. Badira lan honetan aztertu ez diren hainbat gai. Gerra aurrean, 1930 urte inguruan, eske-erronda berriak sortu ziren hiri handietan. Bilbo eta Donostia hiri ezagunetan ez ezik, Tolosa eta abarretan ere Santa Ageda koroak

---

(\*) Oharra: Herri Literaturari buruzko Jardunaldietan irakurria, Eibar, 2002-XI-29.

ibili ohi ziren kalez kale. Kantatzen zituzten koplak ez ziren lege zaharrekoak edo tradiziozkoak, berriak baizik. Era honetako eske-koplak ez ditugu lan honetan aztertuko. Koplak munduan dagoen gairik interesgarriena koplak zaharren teknika dugu. Koplak zaharrak euskal poesia zaharraren estetika fin eta ederrenaren erakusgarri dira. Euskal poesia zaharraren gaina eta bikaina dira koplak zaharrak, inolako dudarik gabe. Teknika horren berririk ere ezin dugu eman artikulu honetan. Hurrengo lan baterako azterkizun eta arakizun geldituko da. Oraingo lan hau batez ere erronda kantuetan egon ohi den gune berezi bati helduko dio, etxeok goraipatzen dituen koplak-guneari.

## J. A. MOGEL ETA HERRI-KOPLA PERU ABARCA LIBURUAN

*Peru Abarca* lanaren bigarren mendeurren honetan nahitanahiezkoa iruditzen zait Mogelek Maisu Juanen ahoan jartzen dituen hitz laudagarriak. *Diálogo primero* edo lehen autuan, behin otordua egin ondoren, herri-kopla bat entzuten dute Maisu Juanek eta Peru Abarkak. Koplak hori, gaur egun ere herri-tradizioan bizi dena, honako hau da:

*Aita semiac edanda dagoz  
Ama alabac jocuan;  
Ostera bere egongo dira  
Soñoco zaarrac cacuan.*

Koplaren ondorengo autua edo hizketa interesgarria bada ere, guri dago-kigun lan honetarako hitzik adierazgarrienak Mogelek Maisu Juanen ahoan jartzen dituenak lirateke:

*«Verso asco iracurri ditut neure aldijan erdaldunen liburubetan; baña ez verba guichitan gauza gueijago esan gura dabenic. Ai ostera cantauco baleu! Ai! asi da... Gagozan issillic. Peru artu goguan.... Cantau ditu verso bi: ¿cer dino?»*

Koplaren muina bi hitzetan laburtu du Maisu Juanek: hitz gutxitan gauza asko esaten ditu. Edertasun handikoak direnez gero, koplak gehiago entzun nahi ditu Maisu Juanek. Kontuan hartzekoa da, gainera, koplak-kantariak ez direla eskolatuak, sapaira igan diren aita-eme moskorak baino. Honela dio Praiska zerbitzariak Maisu Juanen «*Nor ete da cantoria?*» galderari:

*«Aita seme batzuc juan dira sabaira, aita catu andijaz ta semia bere bai cerbaitacuan. Ló eguítico asmoz igon dabee, baña emon deusa aguriac cantiarri. Soñulari eder bat dozu ardaoz basa basa eguinda bere».*

Mogelek Maisu Juanen ahoan jarri zituen hitzek gerora ere, mendetsu batera, oihartzuna izango dute. 1898an Azkue handiak *Euskalzale* aldizkarian (Epaillaren 3<sup>a</sup>, 69or.), hitz hauek jarri zituen emakume baten ahoan:

*«Santa Agedaren bizitzea kantariai entzueran, emakuma eldu-barriak esan eban: Eneban siniztuko, neuk entzun ezpaneu, perdulariotzat neukazan-mutilkote orrek ain gauza ederrak esaten ebezala.»*

Hemen ere, aurreko adibidean bezalaxe, koplak edertasuna goratzen da, nahiz koplakantariak edo koplariak mutilkote perdulario itxurakoak izan. Azkuek aipamen honekin ez ote zion omenaldi bat egin nahi Mogeli? Hitz bere-tsuak eta egoera beretsuak ematen dira kasu bietan. Bietan koplak kantatzen dira eta koplakantariak ez dira itxura finekoak. Ez dira inolaz ere landu eta eskolatu horietakoak, baina hala ere koplak eder askoak kantatzen dituzte. Bada-go besterik ere. «Perdulario» hitza nahiz erderakoa eta erderatikoa izan, Mo-gelek Peru Abarcan erabiltzen dituenetako bat da. Hortik kanpora gutxitan do-kumentatzen da. Bergara aldean erabiltzen da, Apaolazaren *Patxiko Txerren* lanean zein J. M. Elexpuren lexikoan agertzen baita. Omenaldi ori, gainera, koplak ezagutzak dakarren koplak-estetika landua goratzeko ez ote zuen egin? Ni neu baiezkotan nago.

## KOPLA ZAHARRAK NOIZ, NON, NOLA KANTATZEN DIREN

Urteko garai finko eta jakinetan kantatzen dira koplak zaharrak. Garai jakin horiek ez datoz bat Euskal Herri osoan. Hegoaldean Santa Ageda bezperan kantatzen den «Santa (Ageda) eskea» dugu ezagunena bezain dokumentatuena. Santa Ageda bezperako usadio zaharra hainbat modutara esaten da. Ez da gure egitekoa denak hemen zerrendatzea. Bizkai aldean, erdialdean, «Santa Ageda batzea» esan ohi da Mungia inguruan (Meñakan eta abar). «Santa Ageda kantatu», «Santa Ageda eskean ibili» eta abar forma arruntak dira. Gipuzkoa aldean Ageda hitza aipatu gabe ezaguna da usadioa. Modu horretara, antonomasiak «Santa eskea» da.

Bizkaia aldean, batez ere Durangaldean, eskola-mutikoen koplak zaharrak kantatu ohi zituzten ihauterietako ostegun edo egun zuriz. Azkuek ihauterietako koplak hauek Berriz eta Arbazegin bildu zituen. Anton Mari Otorak Abadiño, Garai, Berriz, Zaldibar eta Iurretan bildu ditu tankera honetako koplak. X. Amurizak Gizaburuagan ere bilduak ditu lau koplak. Aipatu diren Bizkaiko herri guztiek garai bateko hedadura zabala salatzen dute. Gaur egun, ordea, bizirik dagoen ia leku bakarra Abadiño omen da. Koplak guzti hauek ikusi nahi izatera, jo bedi X. Amurizaren *Bizkaiko bertsoak I izengabeak*, 1995, 127-143. or. lanera. Bizkaiko erronda kantatuak dira «marijesiak» ere. Bizkaian, gainera, Gernikaldekoek dute sonarik handiena. Gabonetan kantatzen diren kantatu hauen gainean J. A. Arana Martijaren lanak, estudioak eta bildumak, ezinbestekoak dira.

Gipuzkoan Santa eskeak gainera Gabon aroan ere kantatzen dira. Gabon aroko egun izentatuak Gabon egun-bezpera, Gabon Zaharrak edo san Silbestre eguna, eta Urteberri eguna dira. Urte berri egunean ur berria eskatzeko erri-to zaharra gorde da Nafarroa menditarrean. Gabon aroko eske-koplak bilduma politikak daude zenbait lan monografikorik esker. Interesgarrietakoak aipatze-kotan, aita Donostiren «Canciones de cuestión» RIEV, Tome IX, 1918, 141-

172 or. eta J. M. Satrustegiren lanen artean, bete bete hartzen duena «Canto ritual del agua en Año Nuevo» in FLV Año III, nº 7, Enero-Abril 1971, 35-72 or. San Juan bezperako kopia bildumarik ia ez dut ezagutzen. Orixe handiak berak ezagutzen zuen erreskada baten itzulpena egin zuen. Nafarroako kopia bildumen artean, Aezkoan kantatzen zirenek munta handia dute. Azkuek bere «Aezkera edo Petiriberro-inguruetakoko mintzaera» *Euskera*, VIII urtea, III-IV zenbakia, 1927 bagilla-lotazilla, 248-254 or. argitara zituen «San martinen ataria» eta «Sugea dabil» izenburupeko hogeitakopla euskaraz dauden zoragarrietakoak dira.

Iparaldeko kopia zaharren tradizioaren gainean oso gutxi dakigu. Zuberako Larraineko Albadak erabat interesgarriak dira. Ganderailu bezperan kantatzen ziren, hau da, otsailaren batean. Gazteak etxetik etxe ibili ohi ziren odolki eta abarren eske. Dugun lehen testigantzetako bat Edward S. Dogson-ek 1906 argitara emandako kopia-paper soltu bat da. Gerora eskeini zaizkion artikuluak, R. Gallop «Collectanea vasca» *Gure Herria* 1930, 443 eta hurrengoak, Georges Lacombe-rena «A propos des aubades de Larrau» *Gure Herria* 1931, 257-259 or. eta Txomin Peilenen lanek korpua apur bat handitu badute ere, badago zeresan gehiago.

Kopia zaharrak nola kantatzen diren galdetuz gero, behin behineko zenbait zehaztasunez gainera ez dakigu ezer askorik. Gehienetan gizon talde edo aldra batek errepikatu egiten du taldeko koplariak kantatzen duena. Bestela esan, J. Arinek zioen bezala, lehenik koplariak kantatzen zuena gero «sailak» errepikatzen zuen. Martin Angiozarrek honela dio erderaz («Coros de Santa Ageda» *Yakinza* 1933, 65-67 or.): «El cantor solista entona una estrofa adecuada al hogar frente al cual se ha detenido el grupo, el cual repite aquel trozo de canción al compás de sus makillas usadas sobre los guijarros del camino, y así sucesivamente los demás versos hasta el final de la misma; que a veces se suele señalar especialmente con un *ujujú* vibrante, grito humano, *zantzo*».

Gauetz ibiltzen ziren gizon-sailak: abemaritako kanpaiak joz gero, ia eguna argitu arte askotan. Gauetz garai zaharretan kriselu-argia zutela. Kriselu-argiarekin ez ezik, lastazuziekin ere ibili beharra izaten zuten, mendi artean galduko ez baziren. Angiozar berak honelaxe dio (aipatu lanean): «Los tradicionales Coros de Santa Agueda, compuestos de alegres rondadores nocturnos, remozan en el País Vasco la costumbre de entonar de casa en casa típicas canciones del terruño en la noche del día 4 de febrero, víspera de la festividad de Santa Agueda, en honor de la cual una vieja tradición sugestiva y arraigada en el pueblo desde tiempo inmemorial rinde homenaje de cantares y poesía a la luz trémula de una linterna o de fulgurantes haces de paja seca que llamean en las laderas de las montañas».

Era honetako zehaztasun askorik ez dugu idatziz. Erronda-kantuan gehienetan gizonetakoak ibili arren, Bizkaiko ihauterietan eskola-mutikoak ibiltzen ziren. Nafarroako Baztango «Maiak» direlakoetan, ordea, zuriz jantzitako neskatxak.

**KOPLA ZAHARREN ZAHARTASUNAREN ERDIAROKO AZTARNAK**

Kopla zaharretan aintzinasun aztarnak aurki daitezke. Manuel Lekuonak bere lanetan Erdi Aroko kutsua aurkitu ohi zien kopla zaharrei. Kopla gotikoak, on Manuelek bataiatu bezala, Erdi Aroko aztarnak eskeintzen dituztenak dira. Manuel Lekuonak behin eta berrito idatzi zuen kopla zaharren teknika eta zahartasunaren gainean (1). Kopla zaharren gotikotasuna behin baino gehiagotan azaldu bazuen ere, argienik, gure ustean, «Santa Clara´ren kanta zahar bat» lanean ikus dezakegu. Guri dagokigun pasarte guztia hona aldatzea luzeegi litzateke, ekar dezagun, beraz, pusketarik interesgarriena:

*Eder zeruan izarra;  
errekaldean lizarra...  
Etxe ontako Nagusi Jaunak  
urre gorritz du bizarra.*

Denok dakigu kopla au, Etxeko Jaunari loxintxa egin bearrez kantatzen zaiona. Bañan, bear bada, ez dute guztiok jakingo, oartuko, ez dute «xilatu-ko», kopla polit onek duen barrunbe guztia. Erdi Aroan, XII, XIII, XIV gizaldietan, Jaungoikoaren eta Andre Mariaren eta Apostolu Santuen irudi ta imajiñai, illea ta bizarra urreztatu egiten zieten. Olaxe: urrezko bizarra, urrezko illea. Ontatik atera dezakegu norañoiko loxintxa-indarra duan kopla onek. Etxeko Jauna, Aldareko Irudien pareko egiten du: ots, zeruko Santuen pareko:

*Etxe ontako Nagusi Jaunak  
urre gorritz du bizarra  
(aldareko eta zeruko Santu ederrak bezala).*

Bañan kopla oni, loxintxa-usaiez gañera, beste usai bat ere ba´dario bere lau alderdietatik: Erdi Aroko usai sendo-sendoa. Kopla au, kopla *goticoa* da bete-beteen. Irudi gotikoak, imajiña gotikoak dira olaxe urrezko bizar ta urrezko illedunak. Orra, beraz, nondik eta nola atera dezakegun kopla baten gotiko-izaera.

Berdin esan bait-diteke Gabonzarretako beste zenbait koplaentzat ere. Adibidez arako beste arentzat:

*Orroko or goyen iturri;  
ura txorrotik ixuri...  
Etxe ontako galai gazteak  
amalau urre-txintxarri;  
amalau urre-txintxarrirekin  
zazpi damaen eguzki...*

---

(1) «La Poesía Popular Vasca» *Quinto congreso de estudios vascos*, Sociedad de estudios vascos, Vergara 1930, 133-174.or. *Poesía oral euskérica*, 1935, Donostia, 41. orrialdea eta hurrengoak. eta «Bertsolarien pentsamentu-ritmoa» *RIEV*, Julio-Diciembre 1983, 235-250. or.

Erdiaroko oitura zan, jauntxo aberatsak soñekoen ertzetatik urrezko txin-tzarriak zintzilik erabiltzea... dama-jendeen zoragarri ta engañagarri.

Argiago, bear bada, izango degu oraindik lenengo koplaren ondotiko beste ura:

*Urre gorrizko bizarra, eta  
zillar zurizko sorbalda;  
erreal-bikoz egiña dauka  
Elizarako galtzada.*

Zillar zurizko sorbalda orrek ba'du zer-ikusi, zalantzarik gabe, Erdiaroko Zaldunen altzairuzko armadurarekin; altzairuaren ordezt «zillarra diola ezik, loxintxaren loxintxa bearrez nunbait» (2).

Manuel Lekuonak koplak zaharretan ezagunenak eta barreiatuenak diren etxeko jaunaren lehen bietakoen segetua azaltzen du. Ekialdeko euskalkietan «segetua zilatzen edo xilatzen» den bezala, berak ere koplak ezagun horien barrunbe desezagunaren alderdi bat behintzat agertu nahi du. Zilarrezko espalda delakoa ez da besterik garai bateko zaldunek eraman ohi zuten «armadura» baino. Beste lan batean gerrarako erabiltzen ziren armadak eta bakearoen erabili ohi zirenak ez direla berdinak esaten du. Bakealdian erabiltzen dena finagoa da, ez hain astuna, eta armadura dotore horrekin jantzita joan ohi da elizara gure koplako etxeko jauna. Ondorio berera ailegatu zen, esaterako, Juan Karlos Gerra, honelaxe idazten baitu:

«El vocablo zalduna⇒caballero», añade en euskera el concepto castellano de generosidad y nobleza en el porte, el de juventud, aplicándose especialmente al heredero doncel de una casa antigua. Le he visto traducido por «caballerito» para expresar la idea de la mocedad, y también por «hijo», como en las canciones de cuestación, que, después de ponderar la magnificencia del Etxe-Jaun con sus barbas doradas y su espalda de plata (remembranza de la armadura), dicen:

*Etxeko zaldun noblia  
Bera ezin da obia».*

Juan Karlos Gerra, beraz, ondorio beretara iritsi zen M. Lekuona baino lehenago (3), hau da, zilarrezko espalda edo «illar/zidar zurizko sorbalda» edo «diamantezko espalda» horretan zaldunaren armadura edo gudu-jazkia ikustera. Era honetako Erdi Aroko arrostoa askoz gehiago daude. Baina alderdi hau hurrengo puntu batean ikusiko dugu sakonago.

(2) Manuel Lekuona: «Santa Clara'ren kanta zahar bat» in *Bi antzerki ta itzaldi bat*, Itxaropena argitaldaria, Zarautz1965, 111-113 or.

(3) Juan Karlos Gerra: «Viejos textos del idioma Los cantares antiguos del Euskera» in *Euskalerraren Alde*, 1922, tomo XII, 8-9. or.

## KOPLA ZAHARREN ERRESKADAREN EGITURA NAGUSIA

Kopla zahar biltzen ihardun dudanean, neure herrialde-inguruan ezagutu ditudan koplariak ezagunekin hitz egin dut. Koplariak diodanean, lege zaharreko koplagingintzan iharduten zutenak esan nahi dut. Lege zaharreko koplagingintza tradiziozko koplagingintza zaharra da, eta, zoritxarrez, nire eskualde-inguruan genero horretako tradiziozko katearen azken katenmaila osatzen zuten nik elkarrizketatutakoak. Aurkitu ditudan koplariak aberatsenen izenak hauek dira: Migel Ibarzabal, Erlatx baserrikoa, Markinakoa, eta bestea, neure aita zena, Paskual Kalzakorta, Etxano baserrikoa, Berriatukoa. Koplari hauek hogeitau urte baino gehiagoan etxerik etxe kantatu gabe zeudenez gero, egun batzuk eskatu zizkidaten koplak berriro memoriora ekartzeko. Gogoan dut, gainera, Migel Ibarzabalek aste bete eskatu zidala aspaldian kantatu gabeko koplak «buruan pasatzeko», eta gero niri sailean, bat banaka, kantatzeko. Bai egin ere aste bete pasatu ondoren. Bere etxeko sukaldearen erdi erdian sila bantatan jarri, eta bi kopla-sail desberdin kantatu zizkidan.

Koplak baserriko baserri kantatzeko behar zen dohaletako bat, jakina, ahots ederra edo gozoa izatea zen. Koplariak buruan erreperitorio finko eta luze xamarra zuen, eta kantatuko zuen baserriko bizilagunak ezagutu egiten zituen gehienetan. Koplariak duen erreperitorioko koplak ordena finko eta jakin bat dute. Koplak ezin dira nolana hika kantatu, ordena zehatz batean baino. Zein da ordena hori? Nahiz eta xeheki adierazirik leku gutxitan egon, ezagutzen diren kopla-sail ia guztietan ematen da, urrezko lege bat balitz bezalaxe. Tradiziozko ohitura honek leku gutxitan du segida. Gaur egun, askotan behintzat, Santa eskean eta san Juan eskean ibili ohi diren bertsolari gehienak batbatean sortzen dituzte kopla berriak. Adibide ezagunenetako bat ematearren, Azpillaga eta Okelar anaiak Mutrikuko Olatz auzoan eta inguruetan urtero egin ohi duten Santa eskea aipatuko nuke. Bertsolari hauek egiten duten kopla-lantegi honetan, etxeko guztiak koplazten dituzte errespetu-ordena bati jarraituz.

Migel Ibarzabal «Erlatx» koplariarekin orain duela hamar urte baino gehiago (1990an) elkarrizketatu nintzen Markinako bere etxeko sukaldean, eta honelaxe esan zidan: kopla-kateak bi zati ditu, lehenengoa «notak» eta bigarrena «eskabidea». Notak etxekoei dagozkien koplak dira. Eta behin etxeko guztiak «notadu» edo koplatu ondoren, eskabidea dator. Horra, beraz, lehen bi zati nagusiak kopla-sailaren ardatza edo bihotza osatzen dutenak. Bi zati hauek kopla-sailaren bizkarrezurra osatzen dute, eta zati bateko eta besteko koplak oso desberdinak dira. Bi zati nagusi hauek gainera, zati gehiago ere eman daitezke. Ahalegindu gaitez, beraz, lan honetarako sailkapen luzetxoago bat egiten. Notak baino lehenago beste kopla-sail bat dator lehenago. Kopla-sail hau santa Ageda bezperan kantatzen bada, santa Agedaren bizitza izango da. Gabon zaharretan kantatzen bada, Jesusen jaiotzaren misterioa azalduko du eta abar. Zati nagusiarekin hasi baino lehen, notekin hasi baino lehen, badago notei egiten zaien sarrera ba. Sarrera hori baimen-eskatzea izaten da. Baimen

kontu horrek badu bere segida markatua ere. Lehenengo alkateari edo obispoari baimena eskatu diotela diote, gero etxeko jaunari edo nagusiari. Baimen eskatze hau askotan kantuz egin beharrean hitzez ere egiten zen «kantatu edo errezatu» esanaz. Zergatik? Familian hilberriren bat izaten bazuten, ez zelako kantatzen. Kantatu beharrean, otoitz labur bat egiten zen.

Behin notekin bukatu ondoren, koplariak eskabideko koplak kantatzen ditu, harik eta etxeko norbait diruarekin edo jatekoarekin etorri arte. Etorri daiteke, jakina, zein diru zein jatekoarekin. Gerta daiteke, nola ez, kopla-sari laburrekin saritzea koplaria: diru gutxi edo jateko gutxi. Behin kopla-saria hartu ondoren, koplariak esker onezko edo esker txarrezko kopla edo koplak kantatuko ditu. Etxekoek esker txarra agertu ondoren koplariak kantatzen diuen kopla iraingarriak «listorrak» deitzen omen dira Oihartzun aldean.

Erronda-kantuetako nota-gunea zati nagusia dela esan dugu. Nekezen aldatzen dena eta Euskal Herri guztiko erronda kantu gehienetan ematen dena, hain zuzen. Gerta daiteke, inoiz edo behin, gune hori ez izatea kopla-sailean. Bizkaiko marijesietan, esaterako, gune hori ez dago inoiz. Kopla guztiak Jesusen jaiotzaren misterioaren gainekoak ditugu. Eskabideko koplak ere, bat edo beste bakarrik. Zergatik? Baliteke, J. A. Arana Martijak dioen bezala, aintzinako antzerki kantuetatik etortzea marijesiak. Era horretara, antzerkiko koplak erronda-kantuetan erabiltzean, ez dira etxekoak notatzen. Hau J. A. Arana Martijaren teoriari ematen diogun beste arrazoi bat da. Arrazoi honek, gainera, gure ustez badu bere pisua. Marijesiak nota gabeko erronda kantu bakarrak direlako.

## NOTAK: KOPLA-SAILAREN GUNERIK SENDO ETA IRMOENA

Kopla-sailaren lehen zati nagusia «notak» direla esan dugu goraxeago. «Notak» hitzak zerikusia du Bizkaiko nota(d)u aditzarekin. Bizkaian «nota(d)u» esaten dena gainerako euskalkietan «koplatu (4)» esaten da. Bizkaian esan badugu ere, hobeki legoke Euskal Herriko mendebaldean esatea, Gipuzkoako zenbait lekutan ere –Gipuzkoa mendebaldean, Alzolan eta abarhalaxe izendatzen baitira. Honek ez du esan nahi, inolaz ere, Bizkaian gaur egun, eta askoz lehenago ere, kopla(d)u erabiltzen ez denik. Guk «nota» sustantiboa eta «notadu/-tu» aditza era jakin eta zehatz bateko kopla, eta, aldi berean, era jakin eta zehatz bateko koplalte-lana izendatzeko erabiliko ditugu. Kopla-sailaren egitura zehatza ulertzeko argigarri bat baino ez da izendatze hau. «Nota» hitzak eta guk erabiliko dugun «notatu» aditzak, beraz, hitz zehatzak dira: hiponimoak edo hitz markatuak. Kopla hitza, ordea, esangura zabalagoa, orokorragoa duena: hiperonimoa edo hitz markatu gabea. Kopla-sai-

(4) «Koplatu» aditzak uste baino aldaera gehiago ditu. *Kopelatu*, *koflatu*, *kopladu* eta abar. Ez da, ordea, gure lan honetako egitekoa aditz honen aldaerak zehatz ikustea.



leko nota guztiak koplak izango dira, nahitanahiez. Kopla guztiak ez dira, ordea, notak. Kopla-saileko kopla jakin batzuk baino ez dira notak izango. Be-reizketa hau behin behinekoa da. Lehen pausua da kopla-sailaren egitura eza-gutzeko. Behin honetaraz gero, eman ditzagun zehaztasun gehiago. Notak etxean edo baserrian bizi direnen loxintxak dira. Koplariak etxe jakin batekoak edo baserri jakin batekoak notatzen dituenean, loxentxatu, laudatu egiten ditu. Nota bakoitza loxentxa bat da. Etxekoan edo baserrikoan notak ordena finko bat izaten dute. Ordena hau, hitz ozen eta gizen xamarrek erabiltzeko, hierarkikoa eta protokolaria da. Koplak loxentxan eta errespetuan oinarritzen badira, errespetuari dagokion ordena batean kantatuko dira. Zein da, hortaz, ordena? Lehenengo «etxeko jauna» notatzen da, bigarren «etxeko andrea», hirugarren «zaldun nagusia», laugarren «dama nagusia», boskarren «zaldun gaztea» eta seigarren «dama gaztea». «Zaldun nagusia» etxeko maiorazkoa edo primua da. «Dama nagusia» etxeko alaba zaharra, gerora etxandere bihurtuko dena. Alaba zahar honek Bizkaiko zenbait lekutan «maiorazkea» da, maiorazkoaren (mutila) oposizioan. «Zaldun gaztea» etxeko mutila da, «zaldun nagusia» baino gazteagoa. «Dama gaztea» etxeko neskatila, «dama nagusia» baino gazteagoa. Baserrian mutil bakarra badago, ez da egongo zaldun gazterik, zaldun nagusia baino. Berdin gertatzen da neskekin ere. Alaba bakarra badago baserrian, alaba bakar hau «dama nagusia» izango da. Ezin da inolaz ere ordena hau hautsi. Ezin da, adibide argigarri bakar bat jartzearen, dama gaztea etxeko jauna baino lehenago notatu. Beti ordena edo erreskada jakin batean egingo da notatze-lana.

Nik duela hamahiru urte, 1990ko abenduaren 9an, Migel Ibarzabalen ahotik entzundako sailkapena jarri dut hemen. Sailkapen honetako hitzak ere ez dira nik asmatuak, koplariak erabiltzen zituen deitura edo izendatzeak baino. Beharbada sailkapen horretako hitzik harrigarrienak «zaldun nagusia» eta «zaldun gaztea», batetik, eta «dama nagusia» eta «dama gaztea», bestetik, dira. Izendatze honek badu M. Lekuonak zioen gotikotasunarekin zerikusirik. Erdi Arotikako izendatzea da, artean zaldun eta damei pleitesia edo begirune handia ekartzen zitzaienekoa. Koplariak loxentxatzen dituen etxeko guztiak baserriarrak edo kaletarrak baino gehiago jauregitarrak dirudite. Nahiz baserri-atari aurrean nahiz kale-etxe atari aurrean kantatu, gaztelu, jauregi edo handi-etxe baten aurrean bezalaxe kantatuko du koplariak, nori bere ohore eta noblezia handia aipatuaz. Bestela esan, etxeko guztiak notatuko ditu koplariak noble edo errege-laguntzaile edo jaun-andre handiki balira bezala.

Noblezia da, hortaz, notetako berezitasunik nabarmenenetakoa. Etxekoak, koplariaren ahoan, urre-zilarra ugari izango dute, elizkoiak, nobleak, apainak, itxura onekoak, gorpuzkera ederrekoak, langileak, eskuzabalak izango dira. Horrexegatik deitzen diogu zati honi notak, notatzen edo gorai patzen direlako etxekoak. Koplariak, hala ere, nota berak kantatuko ditu batean eta bestean. Baserri bateko etxeko jaunari urrezko bizarra eta zilarrezko espalda dituela badio, hurrengo baserrian ere berdin esango du. Koplariak, gorago esan

dugun bezala, erreperitorio finko xamarra erabiltzen du, eta batari kantatzen diona besteari ere kantatuko dio. Finko xamarra badiogu, ez dugu esan nahi tartean koplak batbatean sortu eta kantatu ezin dituenik. Jokamolde hori ere izan dezake koplariak. Bada, hala ere, zertxobait aldatzen dena. Koplariak lekuan lekuko notak ondo kantatzeko, etxe horretan bizi direnen izenak jakin beharko ditu. Izenak eta etxekeen estadia eta abar. Zergatik? Nahiz nota bera izan, notaren hirugarren bertsolerroan etxekearen izena izentatzen da, modu horretara, beraz, loxintzak indar handiagoa hartuko du.

Juan Arin Dorronsorok bildu eta Isidor Baztarririk (ikus *Jaunaren deia* Ur-tarrila-Martxo, 1982, 78 zb. 69-97. or) argitara zuen Ataungo Santa Ageda kantatzeko usadioan erritual eta gizalege hau lau arau nagusitan biltzen da, honatx:

- 1) *Koplatzen den etxean ez utzi inortxo ere koplatu gabe.*
- 2) *Pertsona bakoitza dagokion ileran edo lekuan koplatu bear da. One-la: 1. Asierako koplak; 2. nagusi etxekeandreak; 3. senar emazte gazteak; 4. alargunak; 5. mutilak zaarrenetatik asita; 6. neskak, oek ere zaarrenetik gazteenera; 7. morroi neskameak; 8. bukaerako koplak. Gai onetan deskuidoak gogoan estu artu oi dira.*
- 3) *Pertsona bat koplatu eta ondorengoak koplatzen asteko bakoitzean esan oi da: Orain aurrera goazen! (izena) ori koplatzen.*
- 4) *Kopla bat baino geiago kanta leizke pertsona bakoitzari, bainan al-bait ondo aukeratuak izan ditezela. Doia daukanak kopla berria as-matu dezake (somatu deike), baina ez inori mina emateko eran.*

Hona aldatu dugun pasarte hau *Jaunaren deia* aldizkarian dagoen bezala tiletez tilez jarri dugu. Egin dugun aldaketa bakarra hirugarren puntuan izena hitza parentesi artean jartzea izan da: (izena). Pasarte horretatik eta orain arte esandakotik hainbat ondorio atera ditzakegu. Kopla-sail osoaren pusketa edo zatirik axolagarriena da notek osatzen dutena. Axolagarri delako hitza erabiltzen dugu, Salvatore Mitxelenak bezala, nahiz hiztegiek jasotzen ez duten, gunerik gutzizko eta bete-betekoena delako. Noten gunea hau kopla-sailaren bizkarrezurra da alde historikotik zein estetikotik, inolako dudarik gabe. Alde historikotik notak osatzen duten gunea zaharrena da eta finkoena delako. Hor agertzen dira notarik zaharrenak belaunez belaun eta mendez mende gorde dira. Kopla-kopuru hau, aldaera dialektal eta estilistiko txikiak gora-behera, Euskal Herri osokoa da. Hasi Bizkaian eta Zuberoan bukatu arte. Koplariak batbatean sortzeko ahala eta gogoia badu, egin dezake kopla berririk, baina belaunez belaun transmititu den ondare hau jasotzen badu, gehinean ere pertsona-izen batez aktualizatu edo egokitu lezake. Horrexegatik izena ere egokia dute: «kopla zaharrak».

Notak kantatzeko ordenan lege bera ematen da beti. Zaharrenetatik gazteagoetara doaz notak, batetik, gizonetakoetatik emakumezkoetara, bestetik.

Lehenak notatzen direnak, beraz, hasiera baten ondoren, nagusi-etxeoandreak dira. Etxeko nagusiari hiru koplak kantatzen bazaizkio, etxeko nagusiaren notak esan ohi du koplariak. Modu horretara, familiako bakoitzak familian bertan duen lekuagatik bere notak izango ditu. Esan beharrik ez dago familiako bakoitzaren notak oso desberdinak direla besteengandik. Familiako bakoitzak, zenbait kasutan, dozena erdi nota edo gehiago izan ditzake. Alargunak edo alkateak edo apezak edo mutil zaharrak, ordea, oso gutxi; bi gehienez ere. Kasurik harrigarriena, neure ustez, Aezkoako «san Martin kanta» dugu. Azkuek dozena bat koplak bildu zituen eta denak dira apezaren notak. Denak dira apezaren loxentxagarri.

Dama nagusiaren edo dama gaztearen notek berezitasun apartekoa dute. Etxeko neskatila gaiean badago, koplaria bera edo talde osoa egiten da neskatilaren merkataria. Bestela esan, koplariak koplak-joko poetikoan bere burua eskeiniko du etxeko neskatilarekin ezkontzeko. Zergatik ezkondu etxeko neskatilarekin galdetuko balu norbaitek, erantzura erraza luke: neskatila ederra da, aberatsa, urre-zilarra nonahitik dariona. Inguruetako zaldun guztiak, gainera, errondan nekegabe dabilzkio. Neskatila hori ezkonduko balitz, ezta horietako handitasuna ere aipatzen da.

«Etxeko jauna» esateko beste modu bat, Gipuzkoa-Nafarroetako koplarien artean «nagusi jauna» da. «Zaldun nagusia-k» beste izen bat ere har dezake: «nagusi gaztea». Lege estua da ordena finko horretan hutsik ez egitea. Deskuidorik badago, gogoan estu hartzen delako. Begi-bistakoa da, esaterako, nagusi-etxeoandreak seme-alabarik ez badute, ez dela notatzen ez dagoenik. Azken kasu honetan, sobra egongo lirakeke zaldun nagusi eta zaldun gazte zein dama nagusi eta dama gaztearen notak. Apaizak ere izaten ditu bere notak eta haurrak ere bai. Guk lan honetan eskeintzen ditugun koplak-erreskadan apaizaren nota xoragarri mordoak dago. Apaizaren nota hauek ez ditugu beste inon argitaraturik ikusi. Morroi-neskameen notak ez dira asko, nik dakidala, eta ikusi ditudan bilduma guztietan bat edo beste baino ez dut aurkitu. Ume txiki edo haurrena bat bakarra ezagutzen dut.

Etxekoen arteko ordena ikusi ondoren, badago beste galdera bat. Herrian bertan ere halako ordena bat jarraitzen al zuten? Hau da, lehenengo alkatearen etxean edo apezaren etxean edo noren etxean kantatzen zuten? Galdera honi erantzuten dion berri bakar bat baino ez dut aurkitu, Azkuerena (*Euskalzaletze* 1898 epaillakoa): «Illuntsean, *Aremaitakoak* ots egiten dabenetik, arimena ioarte Eliz-txiliñak *dinbi danba* ots egiten dabe. Txilin-danbadak io dabezanak ardoak ugari ta bost makur edo peseta izaten dabez erriaren kontura. Txilin otsak amaituta gero asten dira eskea batzen, oraintxe dakutsun eran. Lenengo abadearen etxean ots egiten dabe, gero Alkatearenean, gero urren danetan. Al dabenak aldabena emoten dau: arrautza-lukainkaak, dirua... Dirua naienez izaten dabe. Auskarik edo burrukarik izan eztaiten, Alkateak batzuri baño eztautsee baimenik emoten; baiña aldra onetan bat eginda ioaten dira bitzuk edo irutzuk, baimen-billa ioanikoak. Gaberdi inguruan banatuten dira lotara.»

Abadearen etxea beraz, lehenagokoa zen alkatearena baino. Pentsatzekoa da alkateak eta abadeak ere beren nota berarizkoak izango zituztela. Lan honen lehen gehigarrian agertzen dira ezagutzen ditugun alkatearen nota bakar-txoetakoak. Apaizaren noten gainean bada gauza harrigarririk. Bizkai-Gipuzkoetako koplariak kantatzen zuten nota ia bakarra ezagutzen nuen orain arte. Lan honetako bi gehigarrietan nota gehiago agertzen dira. Lehen gehigarrian lan honen irakurleak aurkituko du ezuste gozori. Parrokoak bere notak ditu eta apaiz soilak bereak. Parrokoaren notarik ez nuen orain arte ezagutzen nik. Lehen gehigarriko sei notak apartak dira.

Pentsatzekoa da etxerik gehienak baserriak edo baserri tankerakoak izango zirela, bestela etxeokoa nola notatu? Kale erdian jarriz gero, nola notatu? Eske-koplak mendirik mendi ibiliz baserriero kantatzekoak izango ziren, itxura guztiak direnez. Gerora, usadioa kalera ez ez ezik, hirietako kaleetara ere jeitsiko zen.

## NOTA KONPOSATU EDO ANIZKUNAK

Goragoko puntuan ikusi dugunez, etxeko bakoitzak baditu bere notak. Nota bakoitza loxentxa bat da, laudoriozko aipamen bat. Behin laudorio bat kantatu ondoren, behin koplak bat kantatu ondoren, beste bat kantatuko du koplariak. Laudorio bakoitzak, ostera, ez du hurrengoarekin zerikusirik. Bestela esan, nota bakoitzak mezu bat darama. Mezu hau, jakina, gorago esan dugun bezala, pertsona bakoitzaren noblezia, dotorezia, edertasuna, aberastasuna eta abarrak markatzeko da. Notetako koplak asko, hala ere, lotura bitxi batez eginak daude. Askotan noten sailean koplak bi lotuta agertzen zaizkigu. Adibide-rik famatuena etxeko jaunaren edo zaldun nagusiaren nota da:

*Eder zeruan izarra,  
errekaldian lizarra;  
etxe ontako nagusi jaunak  
urre gorrizko bizarra.*

*Urre gorrizko bizarra eta  
zillar zurizko espalda.  
Errial bikozi egiña dauka  
elizarako galtzada.*

Bi koplak hauek loturik daude. Bigarrenak lehenaren ondoan du zentzua eta ez alderantziz. Horrek, jakina, ez du esan nahi koplak-sail askotan bigarrena agertzen ez denik. Inoiz lehena bakarrik agertzen da. Gauza bat, ordea, seguru dago: ez da inoiz ere agertuko bigarrena lehenik gabe. Noten arteko lotura hau gehienetan teknika berezi baten bidez ematen da. Teknika hori «ritornello» delakoa edo euskaraz «bihurkia» deitzen duguna da. Euskal izen-datze hau Manuel Lekuonak asmatu zuen eta horrexegatik darabilgu guk ere.

Manuel Lekuonak hainbat bihurki modu zeudela aztertu zuen. Koplatic koplarakoa, kopla barrukoa eta abar. (Ikus «Santa Clara»ren kanta zahar bat» *Bi antzerki eta itzaldi bat* lanean, Itxaropena Zarautz 126 or. aurrera). Lehen koplaren bukaera «urre gorritzko bizarra» bada, bigarrenaren hasiera «Urre gorritz du bizarra eta» dugu. Izan zitekeen beste modu batera ere: «Urre gorritzko bizarrarekin». Teknika honek koplariari koplak gogoratzen ez ezik, koplak elkarriz itsasten ere laguntzen dio.

Baina oraingo galdera beste bat da. Nota-sailaren koplaren artean bi kopla lotu baino gehiago ere agertzen ote dira? Erantzuna haxe litzateke. Zenbat eta kopla-sail aberatsagoa izan, hainbat eta aukera gehiago bi koplako notak edo hiru koplako notak aurkitzeko. Inoiz edo behin, are lau koplako nota aurkitu daiteke. Nekez ikusiko dugu, esaterako, bi kopla lotu horien segidako hirugarren kopla lotu bat. Are nekezago, gainera, laugarren bat. Guk hemen argitaratzen dugun lehen gehigarrikoa ezagutzen dugu bakarrik. Hona lehen eman dugun bikoarekin laukotea osatzeko beste biak:

*Erreal bikoiz galtzada eta  
lauzurikoz ataria;  
etxe barruan betik goraño  
zillarrez eskillaria.*

*Eskillaratan bueltatu eta  
kuarto txiki bat berria,  
aretzek zeukak lau kantoietan  
igeltsu orde zurrria.*

Egia esan beharko banu, bi gainerako kopla hauek irakurri nituenean nagusi jauaren etxeko ateak baino zeruko edertasunaren ateak zabaldu zitzaizkidan parez pare. Bi lehen koplaren mila aldaera ezagutu arren, ez nuen ezagutzen horrelako segidarik! Gainerako bi kopla hauetan agertzen dena bat dator gotikotasunaren kontzeptuan. Zergatik? Galtzada erreal bikoiz eginda badago, ataria lauzurikoz eginda dagoelako. Lauzurikoak errealbikoak baino balioetsuagoak dira. Eskilara, orde, zillarrezkoa. Eta gela, nola ez, urrezkoa! *In crescendo* miragarri bat ikusten dugu. Koplaren lotura, gainera, bihurkiz osatua dago. Eman dezadan beste adibide polit bat (*Aranzazu* 1924, nº 34, año IV, 52. or.):

*Ormatik gora matspar gozoa  
aldamenean lizar(r)a;  
etxe ontako nagusi jaunak  
urre gorritzko bizarra.*

*Urre gorritzko bizarra eta  
azur ta mamiñ ezpada;  
berak etxetik elizaraño  
erreal bikoiz kaltzada.*

*Erreal bikoz kaltzada eta  
peseta berriz plazara;  
aien gañetik etxeko jauna  
ibiltzen da mezetara.*

Zer ikusten dugu hiru koplako nota honetan? Aurreko notan bezala, hemen ere lehen koplari lotuak dauden gainerakoek koplantik koplarako bihurkia dute. Bihuririkir erabiliena dute, gainera: koplaren bukaera bera da hurrengoaren hasiera. Lehen koplak badu berezitasun nabarmena. «Eder zeruan izarra»/ «Zeruan eder izarra» ezagunarekin ez da hasten. Bigarren koplak ere badu bere bestetasuna. Kaltzada hitzaren hoskidea ez da ez «espalda» ez «ezpata» beste zerbait den «ezpada» baino. Adizkia jarri duenez gero «azur eta mamiñ» jartzera behartu da koplaria. Era honetakoa beste bat baino ez dut ezagutzen Azkuek Etxebarrin (Bilbo ondoan) bildu eta *Euskalzale-n* argitaratu zuena. Hiru koplako nota hau honen aurrekoarekin alderatuz gero, zer ikusten dugu? Aurreko notak etxeko jaunaren etxerainoko bidea erakusten zuen. Etxean, gainera, nolako gela duen ere erakusten zuen. Oraingo koplak honek, ordea, etxetik elizarako ibilia egiten du. Aurrekoak barruranzko ibilia egiten zuen bezalaxe, azken honek kanporanzkoa egiten du, elizaranzkoa. Baina nota biak, muinaren munean eta hondarraren hondarrean, egitura eta bihotz bera dute: nagusiaren elizkoitasuna eta aberastasuna erakustea.

Eman ditzagun beste bi adibide. Dama gaztearen koplak biko nota bi emango ditugu atal honetan:

*Egun sentian kantari dago  
landa berdetan eperra;  
etxe ontako alabatxoak  
ule mataza ederra.*

*Ule mataza ederra eta  
begi gozoak dizdira;  
maitetxon batek negarrez dio  
ai, neretzako balira!*

Bi koplak hauek elkarri lotuak daude. Bi koplak hauen lotura, gainera, dagoeneko guztiz ezaguna da guretzat. Bi koplak hauek nota bakarra osatzen dute, behin eta berririo esan dugunez. Lehen koplari, koplak zaharren teknika zoragarria ere ikusten dugu, «Egun sentian kantari dago/ landa berdetan eperra» irudia zuzenagoa den «etxe ontako alabatxoak/ ule mataza ederra» deskripzio edo Aitzolek zioen «oldozkun»-arekin lotua dagoelako. Irakurle zoliak ohartuko du, era berean, nola agertzen diren ttikigarriak «alabatxoak» «maitetxon» hitzetan. Jokabide hori nota askotan ematen da, etxekoak maitez eta errespetuz tratatzen dituelako koplariak. Koplak-sailetan dagoen koplari ezagunenetako sarrera batak aurkezpen ezaguna du: «Joles ta joles etxekotxuok/ nik jotzen ditut atekak/...» Etxean daudenei «etxekotxuak» esaten die koplariak, maitez eta errespetuz. Baina guzti horrezaz landa, bada guretzat arras interesgarri den kontzeptu

bat. Kopla-sail on batean, beharbada beste inon aurkituko ez dugun kopla bi edo hiruko nota bat egon daiteke. Guk hona ekarri dugun nota hau, esaterako, (*Aranzazu* 1924, nº 34, año IV, 52 or.) bildumakoa da, eta ez dugu beste inon berdinek aurkitu. Puntu honetan behin eta berriro ikusi dugu bihurkiaren bizdeko lotura. Lotura guztien artean, gainera, indartsuena eta adierazkarriena da, gure ustean. Bihurkiz egiten ez diren nota bakarraren koplaren arteko loturak bigunagoak, belaxkagoak dira. Eman dezagun adibidetxo bat:

Zure ortuan madari,  
adarrak ditu amabi;  
etxe ontako alabatxuak  
lirio eder bat dirudi.

Eraztuntxoa zillarrez,  
belarritakoak urrez,  
etxe ontako lirio ederra  
edozeñentzat egon ez.

Etxeke alaba koplatzeko bi kopla hauek nota bakarra ote dira? Ba ote dago bien arteko loturarik? Lehen koplari «etxe ontako alabatxuak/ lirio eder bat dirudi» dio. Bigarrenean «etxe ontako lirio ederra/ edozeñentzat egon ez». Nolabaiteko lotura badago, begien bistan dagoenez, baina ez da aurreko adibideetan ikusi dugun bezain irmoa. Bigarren kopla berez edo solte ere kanta daiteke, eta ondo asko ulertzen da nori zuzendua dagoen. Baina, hala ere, bigarrena solte kantatu badaiteke ere, lehenaren segidan kantatuko da gehiengutan.

Kontuak honetara, galdera bat baino gehiago sortzen zaigu. Batetik, gure puntu honetako lau kopla lotu hauek zer dira nota bakarra edo lau nota? Gure terminologia edo izendatze honetan, lau kopla lotu hauek nota bakartzat hartuko genuke. Zergatik? Bigarren kopla lehenaren zehaztasuna da. Bere bakarrean eta hutsean ez luke zentzurik. Lehenaren segida den neurrian du zentzua. Hirugarrenaz ere beste hainbeste esan dezakegu, bi lehenen segida den neurrian du zentzua. Bera bakarrik ez da mezu oso bat. Eta laugarrenaz ere beste hainbeste: aurreko hiruren azken zehaztasuna da. Hitz batez adierazteko, «nota» deitzen dugu mezu hertsia duen kopla bakar edo kopla multzo kateatuari. Nota gehienak kopla bakarrekoak izaten dira. Badira nota batzuk bi kopla lotu edo segidako dituztenak. Hiru koplako notak nekez baino nekezagor aurkitzen dira. Baina gerta daiteke, bakan bada bakan, lau koplako notaren bat aurkitzea kopla segida eder batean.

Lau koplako nota hau, beraz, nota konplexu edo konposatu bat dela esango nuke. Lau kopla horiek batasun bat dute, eta bigarren, hirugarren edo laugarren koplak ezin dira bereiz edo solte ibili. Nota konposatuek, beraz, kopla bat besteari datxezkiola, kate bat osatzen dute. Kate horiek, gorago ikusi dugun bezala, gainerako kopla-sail osoaren atal dira. Behin lehen galderari erantzunez gero, beste bat egin daiteke. Garai zaharretan ez ote ziren nota kon-

plexu gehiago? Garai zaharretan ez ote ziren bi, hiru, lau eta are kopla gehiagoko nota konplexuak? Baiezkoan gaude, inolako dudarik gabe. Zenbat eta kopla-sail zahar eta ederragoak aurkitu, hainbat eta nota konplexu gehiago aurkitzen ditugu.

Adibide gehiago ere eman daitezke. Lehen gehigarriko «Etxeko andrea-ren» 52 eta 53 koplak elkarren segidakoak dira. Gure terminologiaren arauera, bi koplak nota bakarra osatzen dute. Lehen gehigarriko «Zaldun gaztearen» 62 eta 63 koplak ere lotuak daude eta nota bakarra osatzen dute. Bigarren anexo edo gehigarrian ere badira adibide ugari. Nagusiaren 13 eta 14 koplak nota bakarrekoak dira. Andre gaztearen 31 eta 32a ere berdin. Bigarren gehigarrian, esaterako, 24 kopla bilduma gehienetan agertzen den kopla da baina ez ohi du izan segidarik. Kopla bakarreko nota dugu.

Behin honetaraz gero, zerbait gehiago gehituko diogu esandakoari. Notek elkarren artean ez dute inolako loturarik. Nota bakoitza mezu hertsia bat da. Bilduma batean etxeko batek hiru nota baditu, nota horiek ez ditugu ordena berean ikusiko bilduma batetik bestera. Badira, hala ere, aspalditik datarren halako kateamendu egin bat. Nagusiaren edo etxeko jaunaren lehen nota, esaterako, ia beti izan ohi da «Eder zeruan izarra/./»

## NOTAK IA BERBERAK DIRA EUSKAL HERRIKO BILDUMA GUZTIETAN

Kopla-sailaren ardatz eta bihotza etxekoen notak dira, behin eta berriro esan dugunez. Notak dira, gainera, euskaraz ditugun kanturik finkoenak. Kanturik finkoenak ez ezik, komunetak ere bai. Komunetak zentzurik onenengan, hau da, batean eta bestean ematen direnak. Euskal Herriko ia lurralde guztietan nota berak aldaera gutxi dituztela kantatzen dira. Honezaz ohartuak dira orain baino lehenago hainbat ikertzaile. Satrustegik honelaxe dio («Canto ritual del agua en Año Nuevo» FLV 1971, 35 or.) «La versión actual recoge bastantes versos comunes a todos los pueblos de la geografía vasca; pero encierra también peculiaridades dignas de estudio». Orixe handiak ere berdintsu esaten zuen («Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra» lanean): «Euskal-lerria'n geienean, ahapaldi berdintsuak esaten dire, eta bakan izanen dire errian beintzat ez dakitzenak. Ala ere ahapaldi batzuk aldakuntzekin eta idurin edo bekalde batzuk ipiniko ditut (...)». Nota komun hauek euskaraz zuen kantu *corpus* zaharraren berri ematen digute, inolako zalantzarik gabe. Badago besterik. Ia kopla berak kantatu arren leku batean eta bestean, kopla-segidak lekuan lekuko kolorea eta ezaugarriak ditu. Bizkaiko Uribe-kostako eske koplak Bizkaiko euskararen ezaugarriak izango dituzte, eta zehatzago esateko, bertako euskalkiaren kolorea izango dute. Bizkaiko zenbait tokitan, Lea-Artibai bailaran bereziki, kopla-sailak gipuzkeraz kantatu arren, Bizkaiko euskararen ukitu berezia izango dute. Altxor komun hori, beraz, berdintsua izan arren, ez da inolaz ere erabat berdina.



Euskalkiaren kolorea dela eta eman ditzagun zenbait adibide. Zuberoan, Larraine herrian, Albadak deitu eske-kantuak kantatzen dira. Hona etxeko jaunaren nota bat:

*Ogia houn da labeko,  
erra-berrian jateko;  
etche hortako etcheko jauna  
zaldiz elizalako.*

*Zaldiz elizalako,  
han urrhez obendatuko  
hantik etchera jin denian,  
zilhar kaideran jarriko.*

Iturrian datorren bezalaxe ekarri dut hona. Gure transkribatzeko moduan: «Ogia hun da labeko/ erra berrian jateko/ etxe hortako etxeko jauna zaldiz elizalako» «Zaldiz elizalako/ han urrhez obendatuko/ handik etxera jin denian, / zilhar kaideran jarriko». Azken koplak honetan biltzaileak «urrhe» (*ürrhe* gure idazkeran) hitza ezabatu eta gainean *zilhar* jarri du. Bi koplako nota honek badiu antzekotasunak ia Euskal Herri osoko nota askorekin. Nik lantxo honetara Markinan (Bizkaian) Migel Ibarzabali bildua ekarriko dut. Zergatik Bizkaikoa? Are bazterreko lurraldeetan ere (Bizkaia eta Zuberoa) koplak antzerakoak kantatzen direlako froga argigarria delako.

Etxeko andrearen notak kantatzen hasi baino lehen, honelaxe dio aurkezpen-koplak: «Edar Sinsongo kordela/ jaunak eman dit ordena/ etxeko andria notadutzeko nagusiaren urrena». Behin aurkezpen-kopla honen ondoren, bi koplako nota dator:

*Zaldixe dago sillatzen,  
lau oñetatik perratzen,  
etxe onetako etxeko andria  
zaldiz da eleizaratzen.*

1

*Zaldiz da eleizaratzen,  
zidarrez openderatzen,  
andik etxera datorrenian  
urra sillan da jarritzen;  
txokolatia artu bagarik  
andik ez dela mogitzen.*

Zuberoako Albadetako etxeko jaunaren nota eta Bizkaiko etxeko andrea-rena bat datoz. Gure Markinakoa transkribatzeko orduan ortografia onartuan egin dut, ez gaur eguneko Bizkaiko ahoskeran («Saldixe dago sillatzen/ lau oñetatik perratzen/etxe onetako etxeko andrie saldis da eleixeratzen». «Saldis da eleixeratzen/...»). Eskalkiko ñabardurak gorabehera, «zidar/zilhar», «urre si-

lla/ ürrhe kaidera» eta abar, batean eta bestean esaten diren berdintasunak gorabehera, badira desberdintasunak ere. Zuberoako «Ogia hun da labeko/ erra berrian jateko» ez dago Bizkaikoan. Bizkaiko «Zaldixe dago sillatzen» lau oñetatik perratzen» ez dago Zuberoan. Gure lan honetako Ataungo adibidean «lau ointxoetatik ferratzen» ikusiko dugu, ttikigarri eta guzti. Bizkaikoan txokolatea hartzen duela dio, Zuberoakoan ez da horrelakorik aipatzen...

Lurraldetik lurraldera koplak komun batzuk izan arren, badira koplak desberdin asko ere. Are gehiago esango nuke, zenbait koplak-sailetan koplak gehienak batean eta bestean agertu arren, badago bat edo beste sail horretan bakarik aurkitzen dena eta ez beste inon.

Kontuan honetara, bi eratako desberdintasun moduak aipatuko nituzke. Batetik nota beraren aldaera interesgarriak. Eman dezagun orain arte lan honetan gehien erabiltzen dugun adibide bat. Etxeko jaunaren hiru nota desberdin ikusi dugu gorago, lau, hiru eta hiru koplakoak. Eman dezagun bestetxo bat. Oraingo hau Azkuek Altzolan, Gipuzkoan, bildu eta argitaratu gabea:

*Zeru altuan izarra,  
landa berean lizarra;  
etxe ontako ugazaba jaunak  
urregorritzko bizarra.*

*Urregorritzko bizarra eta  
diamantezko bizkarra,  
erreal bikoz egiñik dauka  
elizaraño galtzada.*

Zer du desberdin honek? Lehen koplak orain arte ikusi ez dugun «landa berean izarra» ikusten dugu, eta ez «errekaldean lizarra». Baina horrek baino gehiago harritu nau ni «diamantezko bizkarra» horretako «bizkarra» hitzak. Zergatik? Ezagutzen ditudan koplak-sail guztietan «ezpalda/ezpada/ezpata» hitzak ikusi ditudalako. Hitz guzti horiek horkideago dira «galtzada» hitzarekin, «izarra» hitzarekin baino. «Bizkarra» hitza, ordea, beteago dator izarra/lizarra/bizarra horiekin. Aldaera berri honek, beraz, baditu bere enkantatu eta pameriak.

Bigarren desberdintasuna beste era batekoa da. Zenbait koplak-sailetan beste inon aukituko ez dugun nota bat edo beste aurkitzen dugu. Guk lan honen bukaeran agertzen ditugun bi sailetan badira horrelakoak. Lehen gehigarrian 20-24 koplak, esaterako, parrokoaren notak, beste inon ez bezalakoak dira. Eman dezagun beste adibide polit bat:

*Ardiak dabilta larrez,  
belarrez ase bearrez;  
etxe ontako Nagusi Jaunak  
bular arteak zilarrez.*

Kopla hau lehen gehigarriko 34 kopla dugu. Etxeko jaunaren nota hau ez dut nik beste inon aurkitu. Hemen ere «bular arteak zilarrez» badio, gorputzeko korazari egiten dio aipamena. Baina koraza zilarrezko horren aipamean egin daiteke modu politagoan? Kopla zaharren teknika bidez egiten du irudi zoragarria bistaratzu: Ardiak dabiltza larrez,/ belarrez ase bearrez...

## NOTAK EZ EZIK, GAINERAKO KOPLAK ERE BERDINTSUAK DIRA

Nota-gunean dauden adibide batzuk jarri ditugu aurreko puntuan. Orain gakizkion aurrera kopla-saileko beste guneetako koplen berri emanez. Kopla-sailaren gainerako guneak ez dira kopla-gunea bezain finko eta berdinak. Hala ere, antzerako koplak aurkitu daitezke. Eman dezagun Zuberoako Albadetako kopla bat:

*Eman gei badüzü, emazü  
heben zer ari giaudezü?  
Mithil gaztiak girade eta  
dothia behar bilhatü.*

Bateratasunak gorabehera, badira, izen dotore bat jartzearen, kopla *hap-pax* zenbait ere. Hau da, beste inon ez bezalako kopla bat edo beste izan dezake bilduma batek. Eman dezadan adibide bakar bat. Barandiaranek bildu zuen lan osoan begira jardun ondoren, Zugarramurdi bildu zuen kopla sail polit bat badu («De la población de Zugarramurdi y de sus tradiciones» *Homenaje a Odon de Apraiz* 63-64. or.). Bilduma horretan kopla ezagunez gainera, bada bat beste inon aurkitu ez dudana. hona hemen:

*Aizkora-gider biribil,  
Ezin egon ta banabil,  
Etxe ontako nausi jaunak  
saski bat bete biribil.*

Zenbaitetan kopla ezagun baten segida ere ikusten dugu. Eman dezagun, kasurako, eskabideko kopla bat:

*Etxe onetako Mariye  
ointxe esangotzut egiye,  
ainbat lasterren topau egizu  
ollo pintoen abiye.*

Kopla ezagun honek zer du atzean? Badakigu eskabidean arraultzak eskatzen direna askotan. Baina arraultza horiek ez dira nolana hikoak, oilo pintoaren habian daudenak baizik. Zer ote dago horren atzean? Kopla horren segida bakarra aurkitu dugu. Segida hori Errose Bustintzak Mañarian bildua da. Hona hemen:

*Ortxe goiko sabayen,  
estuen edo nasayen,  
ollotxuen bat egongo dala  
arrautzetxuekin abiyen.*

## **AURKEZPEN-KOPLA, SARRERA-KOPLA EDO ZUBI-KOPLEN EZAUGARRIAK**

Etxekoak notatzeko orduan ordena jakin bat segitzen dela esan dugu gorago: etxeko jauna, etxeko andrea, zaldun nagusia... Batetik bestera pasatzeko, ordea, sarrera-kopla bat kantatu ohi du koplariak jauzia gogorregia gerta ez dadin. Kortesiak eskatzen duen aurkezpen-kopla bat da hau. Aurkezpen-kopla honek etxeko norbaiten gorantzak eta alabantzak bukatu direla esateaz gainera, beste norbait goraitpatzen hasiko dela dio. Eman dezagun adibide bat:

*Nagusi jauna, parkatu,  
ez bazaio ongi notatu.  
Orain (h)asita gura genduke  
etxeko andrea koplatu.*

Kopla hau nagusi jaunaren nota guztien ondorengoa da. Koplariak nagusi jaunari nota gehiago kantatuko ez dizkionez gero, barka eskatzen dio eta nor den koplaturko duen hurrengoa adierazten du. Tankera honetako koplak notei dagozkien errespetu, kortesia eta gizalege goitarraren erakusgarri dira. Era honetako koplei «aurkezken-kopla» edo «sarrera-kopla» edo «zubi-kopla» deituko diegu. Izendatzea gurea da, ez koplariak erabili ohi zuten hiztegiakoa. Migel Ibarzabalek esan ohi zidan etxekoak beti sarrera bat behar zuela, presentazio bat.

Jose Ariztimuñok bere ikerlanetan («Euskal olerti-kera berezia (Estetika)» *Yakintza* 2(1934, 345. or.), irudia eta oldozkuna zuten kopla zaharretan (Au aiziaren epela/ airian dabil orbela.../ Etxe ontako jende leialai/ gabon Jainkoak diyela»), lehen zatia «oiuegillea» litzatekeela eta bigarren zatia «oiuegillearen ondoren datorren zalduna» zioen. Oiuegille delako hori gaztelaniazko «heraldo» horren euskal ordaina litzateke. Erdi Aroan zalduna agertu baino lehen, zaldunaren berri ematen zuena zen heraldo edo delako «oiuegillea». Gure oraingo atal honetan ere imajina berbera har dezakegu. Aurkezpen-kopla etxeko norbaiten «oihugilea» dugu.

Behin kontuak honetara, egin dezagun galdera bat. Zer-nolakoak dira aurkezpen-koplak? Era askotako aurkezpen koplak daude, inolaz ere. Aurkezpen koplariak ezagunena:

*Arantza beltzak ostoa txiki  
puntara zaio loratu.  
Oran (h)emen be(h)ar genduke  
Dama gazte koplatu.*

Aurkezpen koplak hau, begi-bistakoa denez, aldakorra izango da. «Dama gaztea koplatu» hori baino lehen «zaldun gaztea koplatu» erabiliko du eta aurrekoa «etxeko andrea koplatu» eta abar. Badago, hala ere berezitasuntxo bat. Aurkezpen-kopla askoren estrofako lehen zatia fruitu edo frutuarbola bati dagokio. Eman ditzagun zenbait adibide. Markinan Migel Ibarzabali jasotako koplak sail berean aurkezpen-kopla bat baino gehiago erabiltzen zituen. Hona hemen bi:

*Madari txiki betie,  
aurten dauke berak urtie.  
Emendik asita gura nai ñeuke  
etxeko andrian notie.*

*Arantza beltzak ostrua txiki  
puntara dauke loratsu.  
Emendik asita gura nai ñeuke  
zaldun nagusioi notadu.*

Lehenean madari txiki betearen berri ematen du, bigarrean arantza beltzarena. Azkuek Altzolan bildutako bi hauetan honela agertzen da:

*Negua da ondo neurtua,  
udaberrira frutua;  
orain emendik bear genduke  
koplatu mayorazkoa.*

*Kerexa txiki betea  
elduta libre jatea;  
orain emendik bear genduke  
koplatu mayorazkea.*

Bi hauetan ere frutuen berri ematen duenez gero, aurkezpen-koplaren ezaugarria hori ote da? Guk aurkitu ditugun gehienetan halaxe ematen da, zailtzarik gabe. Gure lan honetako bigarren gehigarrian 17 koplak holakoxea da: «baratzan eder txerrena/ ondotik gora lerdena». Badira, hala ere, joera hau betetzen ez dutenak. Ikus bitez bigarren gehigarrian 23, 39 eta beste.

Esan beharrik ez dago, azkenik, koplak sail berean aurkezpen-kopla bat baino gehiago egon daitezkeela. Etxekoak beste aurkezpen-kopla desberdin ere egon daitezke. Inoiz, gainera, etxekoak baino aurkezpen-kopla gehiago ere bai. Gerta daiteke, jakina, aurkezpen koplak bera erabiltzea koplak sail berean. Guk era guztietako adibideak ikusi baditugu ere, gura sail honetan –aberatsak diren ber- aurkezpen-kopla desberdin askotxo daude.

## JAUN HANDIKIEI EGINDAKO NOTAK: ABBADIE JAUNARI ETA ADAN DE YARZARI

Bi jaun handikiri egindako nota-erreskakatxoak jarri nahi nituzke puntu honetan. Kopla-sailetako lehena Mario Adan de Yarza (1846-1920) jaunari eskeinia da. Hurrengo datozen hiru kopla-sailak Abbadie jaunari eskeiniak dira. Mario Adan de Yarzari izan zen «pinus insignis» delakoa gure artera ekarri zuena. Bizkaiko mendiak pinuz josiak ikusten baditugu, are pinuz hatsituak esango nuke, jaun horrek Kaliforniatik ekarri eta hemen zabaldu zelako da. Mario Adan de Yarza jauna Lekeition bizi zen, Zubieta jauregian, eta neure aitaren koinatu batek, «Zozobenta» izenekoak, zioen Gojenola delako batek 1910 inguruan kantatu zizkiola Santa eske batean kopla batzuk. Gojenola hau Mario Adan de Yarzaren senide egiten zen, lehengusua. Horrexegatik dio «ezagun-jentea» eta «lehengusuak» direla. Kopla egokiak izan ziren edo behintzat jaun handiki hau hunkitu bide zuten, eta sekulako saria eman zuen, ehun pezeta garai hartakoak. Kopla hauek neure aitari entzun ohi nizkion nik. Neure aitari, jakina, bere koinatuak esango zizkion. Beharbada erreskada luzeagoa izango zen. Nik hemen jarriko ditudanak bakarrik entzun nizkion neure aita zenari. Hona hemen:

*Gure guraso lenago  
Adan da Eba lenengo,  
aren izeneko kaballerua  
palazio onetan dago.*

*Bera entzuten balego,  
danok genduke gurago,  
limosna eder bat emongo  
leku oberik zer dago?*

*Santa eske eguna da ta  
joten gatoz gu atia,  
pentzau deguna kuadrilla batek  
kostunbre auxe amatzia.*

*Nola ibillera txarra den au,  
geure buruen kaltia!  
emen gauzkazu ate onduan  
zeuen ezagun jentia.*

*Aterik ate kantatzen gabiz  
akordatzen diran bertsoak,  
despreziorik ez degu emango  
nola geran legusuak.*

Hiru kopla-sail eskeiniko ditugu, bigarrenez. Kopla-sail hauek Antoine T. d'Abbadie (1810-1897), edo Antono Abadia, euskalzale handiari kantatuak

dira. Noiz ere badakigu 1889 urteko urriaren 31. Kopla zaharrak kantatu ohi diren bezala kantatuak daude Abbadiren etxeko ate aurrean. Kopla hauek Pariseko Bibliothèque National-eko, Celte & Basque ondareko 169 esku izkribuan daude. Azalpen hau dute: «Compliments improvisés a la porte d'Abbadie le soir du 31 X ie 1889. N. Ceux-ci sons le meilleurs ou moins mauvais de 3 groupes successifs de chanteurs». Ohar honen irakurleak erreparatuko du hitz hauek duten ziria «hauek direla onenak edo ez hain txarrak (los menos malos, erdaraz)». Hona beste gabe:

- |   |   |    |   |
|---|---|----|---|
| 1 | <i>Usaya degu urtetic<br/>Kanta dezagun gogotic,<br/>M. D'Abbadie-ren ohoretan-<br/>-Egun premisa degun partetic.</i> | 6  | <i>M. d'Abbadie barkatu<br/>Ez banaiz ongui portatu,<br/>Zure premisuz nahi nuke-<br/>-Madama ere koplatu.</i>              |
| 2 | <i>Agur Yaun zilharra<br/>Ez dezu estatu miharra<br/>Probiac emen bizitzekotan-<br/>-Badegu zure biharra.</i>         | 7  | <i>Yainkoac gau-on Madama;<br/>Dakit ainitzec errana,<br/>Ondo horietan yakintzun garela<br/>-Amoña eguilea zarela.</i>     |
| 3 | <i>Zu zera eguiaiz puchanta<br/>Badezu izate galanta,<br/>Zebait amoña egiten dezu-<br/>-Zehorri fidela izan-ta.</i>  | 8  | <i>Madama hau Zubernuan<br/>Arras biharra guinduan,<br/>Fidelagorik ez ditake izan-<br/>-Probientzaric munduan.</i>         |
| 4 | <i>Zubernuako heguian<br/>Yaun bat guzien erdian,<br/>Fidelagorik ez ditake izan-<br/>-Iduzkiaren azpian.</i>         | 9  | <i>Ez dut eskola handia<br/>Bañan erraiñ dut eguia,<br/>Madama hunek zebait proberri-<br/>-Emaiten degu oguia.</i>          |
| 5 | <i>Ez da mundu hau berdiña<br/>Bainan Yainkoac eguiña,<br/>M. d'Abbadie, ai zu bezala-<br/>-Guziac bizi baguiña.</i>  | 10 | <i>Yakiña da gutchi naizela<br/>Mintzo naiz ahal dudan bezala,<br/>Madama, zure karitateac-<br/>-Yainkoac paga ditzala.</i> |

(Chalbador Manzizidor)

Lehen kopla-sail honek baditu koplak notan ezaugarri asko. Lehenengoz Abbadie jauna notatzen dute, eta hurrengo, Abbadie jaunaren baimenarekin, emaztea. Laugarren koplak badu antzekotasuna, modu batera behintzat, Atauen kantatzen den:

*Gure errian ardoa merke  
kuartiltoa zazpian;  
zu bezelako mutillik ezta  
oskarbiaren azpian.*

Seigarren kopla leku askotan agertzen den zubi-kopla ezaguna da, inolaz ere. Kopla hauek Hendaiatik hurbil dagoen Zubernoako gaztelu-atean (ikus 8. kopla) kantatuak izango ziren.

Bigarren kopla-sail honek (2 Groupe Cumpliments du 31 Xre 1889) baditu beste bilduma askotan agertzen diren sarrera «Alabatua, benedikatua» eta bigarren kopla polit bat herri-kopla izan daitekeena. Gainerako asko puztuegiak dira...

- 1 *Alabatua, benedikatua*  
*Oi sacramentu santua.*  
*Mantcharic gabe-*  
*-Zeren den kontzebitua.*
- 2 *Sasoin ascotan izaiten ihintza*  
*Yainkoac zerutic eguin-ta,*  
*Yaunari urte on baten-*  
*-Desiratzen gabiltza.*
- 3 *Yakindu dut Galbarreta ondoko lur ttikiaren berria*  
*Nahasi bat omen zuen kontra, bertzia enochentegui*  
*Yauna gachtoa izan bazen-*  
*Merezi zuten presundegui.*
- 4 *Yendeac behar dute izan tzarrac edo pozoñac*  
*Bichtan da yaunac bazituela arrazoñac*  
*Agueriko da orai zoinec botako-*  
*-Dituen horren lezoñac*
- 5 *Yaunari egiten badiozkate kontrako aferac*  
*kasu eman dezatela ikusteac berac*  
*Nahi ez badituzte izan-*  
*-Ichtant bateko galerac.*
- 6 *Nagusi yaun zilarra*  
*Puchant eta leyala*  
*Ainitzec badugu toki hautan-*  
*-Bizitzeko zure beharra.*
- 7 *Obra handiac ditu gauza ongi eguinac*  
*Eman ere dituzu kantitatezko primac*  
*zu hilzen zarenean-*  
*Izanen dire sabeleko minac.*
- 8 *Guehienec estimatzen zaituzte*  
*Eta bihotzetic maite*  
*Guciec ala ezaten dirate-*  
*-Eguiten ahal dezu hainbeste.*

(Pascal Maya)

Hirugarren sailak, laburrena bada ere, baditu bere enkantuak. Bigarren kopla, kopla zaharren tankerakoa du: irudi eta oldozkunarekin. Herri-kopla hau ez dugu beste inon aurkitu.



3 groupe compliments du 31 1889

1 -Bekatuaren mantcharic gabe  
Kontzebitua izan zen,  
Gure bekatuac diela mediante-  
Gurutce baterat igan zen.

2 Etchian eder papera  
Mahainean urhe flatera  
Ahalke garela, etorri gare-  
-Yauna, beroren athera.

3 Yauregui huntako Madama  
Andre bat duzu ona  
Pobrien sokorritzeko  
-Yainkoac emana.

4 Zubernuako partian  
M d'Abbadie  
Nahi nuke ehun urte-  
-Huntan bizi baledi-

(Juakin beltza)

## ESKABIDEKO KOPLAK

Eskabidea noten ondoren datorrela esan dugu gorago. Hala da legezkoa eta bidezkoa. Behin losentxatu ondoren dirua edo jatekoa eskatzen da gizalegez. Ez dugu ahaztu behar errito edo ohikunde bat bete ondorengo helburuetako bat diru-jatekoak lortzea dela. Erdaraz ere «canciones de cuestión» edo «coplas de cuestión» bezala ezagutzen ditugu. Orixe handiak euskaraz «eske-leloak» bezala izendatzen zituen bere «Euskal-literatura' ren atze edo edesti laburra lanean» (*Euskal Esnalea*, XVIII, 1927) (5) Eske-koplak gehienetan hala egituraturik badaude ere, ez da beti horrela izaten. Askotan etxeko andrea notatu behar denean limosnaria dela esan ohi da. Limosnari hitz honek baditu mila aldaera: limosnagilea, limosnerea eta abar. Era horretako izenla-

---

(5) Nikolas Ormaetxea «Orixe»-k hamar pusketatan argitaratu zuen «Euskal-literatura' ren atze edo edesti laburra». Lehen hiru zatiak 1927ko Uztaila 283 zenbakia, 148-156. or.; hirugarrenaren jarraipena Dagonilla 284 zenbakia, 169-173. or.; laugarren-boskarrenak Irailla, 285 zenbakia, 191-196 or.; seigarren zazpigarrenak Urrilla, 286 zenbakia 205-215. or.; bederatzigarrena Azaroa 287 zenbakia 228-237. or.; eta bederatzigarren bukaera Lotazilla 288 zenbakia, 246-252. or. Pusketa guzti hauek liburu batean sarturik ikusi ditugu *Euskal literaturaren historia laburra* izenburuarekin (Utriusque Vasconiae, Donostia 2002). Liburuaren prestatzailea Paulo Iztueta dugu. Orixe egindako literaturaren artikulak ere biltzen ditu lan honetan Paulo Iztuetak. Guzti hauek z gainera prestatzailearen hitzaurre argigarri bat ere badago.

gunak erabiltzea, begi bistako kontua denez, eskabidean ibiltzea da, neurri handi batean. Badira etxeko andrearen noten artean eske-kopla zuzenagoak. Guk lan honetako gehigarrian agertuko dugun Ataungo kopla-sailean, badira etxeko andrearen notetan eskabideko kopla argi argiak. Etxeko nagusiaren notetan ere inoiz edo behin eskabideko bat egon daiteke.

Eskabidea egiten denean, bi eratakoa da diru-eskatzea eta jateko-eskatzea. Jatekoa gehienetan «gazigarria» deitzen dena da, hau da, gatzun-askan gatz egin ondoren, neguari eusteko jatekoa, zezina, okela gatz hartua edo odolki, solomo, lukainka eta abar. Arraultzak ere biltzen ziren. Jateko hau Santa eskea egin ondorengo hurrengo egunetan jaten zen. Markinaldean «txitxi-burduntzi» deitzen dugun egunean. Bizkaiko beste leku batzuetan, batez ere Arratia aldean Aratuste aurreko lehen igandean. Honelaxe adierazten du Azkuek *Euskalzaile* aldizkarian (1898, Epaillaren 3an 69 or.): «Aratuste-aurreko Domekan (Kanpo-martxo-ko Domekea esaten iako) goizeko zazpi-zortziretan Santa Agedaren altaran, edo beñik beñ Santa Agedaren irudia aurrean dala, Meza bat euren izenean aginduten dabe mutil kantariok; eta diru-enparauaz arratsaldean askari edo lauretako eder bat egiten dabe, baturiko arrautza-lukainka guztiak, bat saldu barik, iaten dabez, bildotsa edo artxoa ta tostada ta guzti; ta kitu urrengo urterarte».

Dirua ere eskatzen dela esan dugu gorago. Dirua, gainera, erruki gabe eskatzen da. Zergatik? Esaerak dioen bezala eskatzea libre delako. Baina bada-go besterik ere. Baldin etxean bizi direnak aberatsak badira, urre-zilarretan igeri badabilta, nola eskatu ez urrezko txanponik? Urrezko ontzak edo ontzurreak ere eskatzen ziren. Garai bateko diru handiak dira urrezko ontzak edo ontzurreak. Badute izen gehiago ere: hamaseikoa eta hogeikoa. Hamaseikoa eta hogeikoa deitzen zieten hamasei duro eta hogeia duro dituztelako. Diru hauek ez dira atzo goizekoak. Diru zaharrak dira, inolaz ere. Felipe III (1578-1621) garaian hasi ziren korritzen eta Fernando VII (1784-1833) garaituan bukatu ziren. Hona adibide bat:

*Amaseikoak magala zabal  
pesetak larogei ditu.  
Andik pare bat emanagatik  
irurogetaz gelditu.*

Hamaseikoa deitzen zen, hamasei duro zituelako. Hamasei duro laurogei pezeta dira, baina ez oraintsukoak orain baino ehun eta berrogeita hamar urte baino lehenagokoak! Horrexegatik laurogeiri zerbait kenduz gero, gelditzen dira hirurogetaz pezeta.

## **NOTEN EZAUGARRIETAKO BAT ABERASTASUNA: URRE-ZILARRAK, DIAMANTEAK...**

Zenbat eta kopla-sail zaharragoak izan, hainbat eta urre-zilar gehiago izango dituzte notetan. Gerra aurrean santa eskean hiri handietan kantatzen zi-

ren kopla berriak ez dute holako berezitasunik. Notatzen diren nagusi-etxeako andreen notetan agertuko da batez ere aberastasuna. Zaldun nagusi/ zaldun gazte eta dama nagusi/ dama gaztearen notetan baino aberastasun gehiago agertzen da etxeo nagusi-etxeoandreen notetan. Eman ditzagun zenbait adibide. Errose Bustintza «Mañariko»-k, Urkiola azpiko Mañaria herrian andra gaztearen nota hauek batu zituen (Euzko-Erri-Jakintza» *Euzkadi*, 28 de Junio de 1932):

*Baso zelattik gorantza  
mendijan-ziar larrosa,  
etxe ontako andre zintzuak  
urregorritzko ardatza.*

*Urre gorritzko ardatza eta  
diamantezko goruba.  
Atorra pinak ondo etteko  
onek ba-dauko moduba.*

Nota bakarra osatzen duten bi kopla hauetan urregorria eta diamantea agertzen dira. Hau da noten estetikaren ezaugarri nabarmenetako bat. Etxean dagoen emakumeak ardatzean edo goruan egiten badu, ardatza eta gorua ez dira nolana hikoak, dama handi bati dagozkion urre-diamantezkoak baizik. Eman ditzagun adibide gehiago:

- 1 *Eguben zuri onetan  
asmo onagaz kantetan  
masu jaunaren diszipulubak  
emen gaukazuz atetan.*
- 2 *Etxeko nausi prestuba  
bedeinka zeure eskuba;  
etxe onetan lengo urtian  
bete genduan sestua.*
- 3 *Etxeko andre madama  
oin señora ta len dama;  
ortxe bidian esan daukute  
limosnagiña zarala.*
- 4 *Etxeko dama gastia  
ointxe da zeure astia;  
modu onetan kantau ezkeru  
biar geunke irabaztia.*
- 5 *Ikusirikan zeure modua  
zeure aman dauko gogua  
Paris'tik zeuri ekarritako  
diamantezko gorua.*

Bederatzi kopla dituen sail batetik lehen bostak aldatu ditugu hona. Al-  
datu, gainera, inolako ortografia aldaketarik gabe. Iturria «Euzko-Erri-Jakin-  
tza» *Euzkadi*, 1932 urteko uztailearen 9koa da. Kopla zahar hauek ihauterie-  
takoak dira. Honelaxe dio biltzaileak: «Apatamonasterio'ko mutiltxubak  
abestuten dabez neurtitz oneik, eguben-zuri edo jueves gordo deritxon egu-  
nan. Eresi politta daukee». Paristik ekarritako diamantezko gorua agertzen da  
boskarrenean. Zergatik? Aberastasunaren seinaleak nondinahi agertzen dire-  
lako notetan. Lauaxetak honelaxe iruzkindu zuen sail hau: «Erri, orretako gas-  
tiak Parisén egonak dira-edo. Madama irakurten dot ahapal baten-eta... Gero  
ostera Paris'tik diamantezko goruba ekarriko dautsola bera amek dirautse  
neskatil gaztiari. (...)». Gure sail honetako hirugarren koplak berdintasun  
handia du Abbadi jaunaren emaztearen nota batekin (ikus lehen koplariaren  
7 kopla):

*Yainkoac gau-on Madama;  
Dakit ainitzec errana,  
Ondo horietan yakintzun garela  
-Amoña eguilea zarela.*

Aberastasun honen seinale, eman dezagun Azkuek bere paperetan bildu-  
tako adibide polit bat (Kuaderno gorria 1495 zenbakia, 81 orrialdea):

*Eguerri gabean  
gu gera lengo legean  
gazteak emen eldu gira  
guziok umildadean.*

*Nagusi jauna barkatu  
etzaitut ongi koplatu,  
koplari onak baitugu  
bainan gaiso zaizkigu gertatu.*

*Zeruan eder izarra  
errekaldean laizarra,  
etxe onetako nagusi jaunak  
urregorritz du bizarra.  
maukian urre sagarra  
bera maiteak emana.*

Hemen zer degu berri? Bestetan agertzen ez den zerbait ikusten dugu he-  
men. Etxeko jaunak badu mahukan urre sagarra ere. Zer da urre sagar hori?  
Garbizaleek laranja adierazteko erabiltzen zutena edo beste zerbait? Guri orain  
dagokigun kontua da aberastasunaren agergarri aparta agertzen dela azken ko-  
pla honetan. Adibide askoz gehiago eman daitezke, baina bego honetan atal  
hau.

## NOTETAN ERREGEAK, PRINTZEAK, JAUREGIAK... AGERTZEN DIRA

Aurreko atalean bezalaxe hasiko gara oraingo atal honetan ere. Zenbat eta kopla-saila zaharragoa izan, hainbat eta noblezia arrasto gehiago agertuko dira. Era horretara, etxeokak errege-erreginen ezagun eta adiskide dira. Gortera elizara bezalaxe, zaldiz joaten da etxeoko nagusia zein etxeoko andrea. Noblezia hau, jakina, bat dator aurreko puntuarekin: aberastasunarekin. Gazteluetako handikiak, gorteko errege-erreginak bezalaxe, aberatsak dira. Era honetako koplak batez ere Ataungo kopla-erraskadan agertzen dira, gure lan honetako bigarren gehigarrian. Aitorpen bat egin beharko banu, hemen jarri beharko nuke Joxe Arratibelekin behin baino gehiagotan mintzatu naizela honenezaz. Arratibelen iritzia Isidor Manzisidorrenarekin bat datorrela uste dut. Ataundar hauen iritziz, kopla zahar hauek Nafarroatik etorriak dirate. Nafarroan, Erdi Aroan gortea zegoen garaikoak dira kopla zaharrak. Iritzi honek badu bere oinarria. Erdi Arotikoak badira kopla zaharrak, kopla gortesauak dira neurri batean. Garai bateko handikiak, gaztelutarrak zein jauregitarrak, notatzeokak dira nota zaharrak. Gerora gaztelu, jauregi eta handietxeetatik gainerako etxeetara etxeokak notatzera pasatuko ziren koplariak. Trobadoreak jauregiz jauregi ibili ohi ziren bezala, *ceteris paribus*, gure garai bateko koplariak ere halaxe ibiliko ziren. Nobleziaren arrasto hau Euskal Herri osoko kopla zahar askotan ikusten dugu. Eman ditzagun bazter euskalkietako bat. Zuberoako kopla argitaragabe batean, (*Albadak* direlakoetan kantatzen zirenak) honelaxe esaten da:

*Etcheko jauna bidian,  
urrhe kana eskian  
erregeri mintza litezu  
bere bouneta burian.*

Gure gaurko erara transkribaturik: Etxeko jauna bidian/ ürrhe kana eskian/ erregeri mintza litezü/ bere buneta bürian. Guk hemen transkribatua etxeoko jaunaren nota bat da. Era honetakoak askotxo ditugu. Hona bi bakarririk:

64 *Errekatxoan arri limuri  
zaldi urdiñe igari;  
orra bada ta (...N) ori  
zazpi erregen kriadi. •*

65 *Bestela gizon ona dalarik  
jekerea do nagie,  
baldin erregek jakiten bado  
orren tretaren berrie,  
sari batean bialduko lioke  
ezpatarekin zaldie.*

Errekatxoan harri labainak (arri limuri) daudela dio, eta harri labainetan zaldi urdinak igari. Zaldi urdinen jabea etxeko mutila da, zazpi erregeren kriari edo atabal jolea. Hurrengo koplari, 65ean, jaiekiera nagia badu ere, bestela gizon ona dela dio. Baina erregek jakiten badu, emango edo bidaliko dizkio-la «ezpatarekin zaldie», hau da, «ezpata eta zaldia» euskal egitura zaharrean. Erregeak, gorteak eta abar agertzen badira ere, ezpatak, magiak, eta abar ere agertuko dira koplari zaharrotan. Bi adibide baino ez ditugu emango (Adolfo Arejitaren «Santa Ageda koplak Sopelana-Urduliz inguruan» *Eusko Ikaskuntza Sociedad de Estudios Vascos* 1982, 84-93. or.):

*Ate atzean espata  
es (Maritxu) espanta  
Jaun serukoak gordeurik deuka  
seuretzat morroi galanta.*

*Eder espata majiarekin  
magia pantalorekin  
etxeko andre etorri saigu  
eskuan limosnarekin.*

Bigarren hau leku askotan dokumentatzen da. Lehena askozaz leku gutxiagotan. Bigarrenak esan nahi duena da «eder ezpata magiarekin». Magia ezpata sartzen den zorroa dugu. Ezpata-zorro hori zaldunaren gerrian prontalarekin lotzen da. Koplari hau urteetan barrena asko desitxuratu da. Azkuek bildutako adibide batean honelaxe dator:

*Eder ezpata Mariarekin  
Maria amantarekin.  
Etxeko andrea etorri zaigu  
eskuan limosnarekin.*

Adibide honetan «magia» hitza *Maria* bihurtu da eta «frontal/prontal» delakoa *amantala*. Holako desitxuratzek sarri eman ohi dira koplari zaharretan. Zergatik? Urteen joan-etorrian esangura zaharra gizarte zahar bati zegokiolarako. Esan beharrik ez dugu zenbait koplari aldatu, eta are desitxuraturik, iritsi direla guregana. Eman dezagun adibide bat:

*Eder basoan ezpala  
nik ezin esan bestela.  
Zure besoan lo egingo nuke  
paradisuan bezela.*

Koplari hau horrelaxe ematen da askotan. Basoan ederra dena, ordea, ez da *ezpala*, hau da, «astilla». Basoan ederra dena zuhaitz klase bat da *ezpela*, hau da, gaztelaniarazko «boj». Ezpela delakoa aldatu egin da ia koplari-sail gehienetan eta ulergarriago den *ezpal* hitza eman du.

## XIX MENDEA BAINO LEHENAGOKO TESTIGANTZAK

Guk ditugun koplak-bilduma gehienak hogeigarren mendean eginak dira. Hemeretzigarren mendean egindako koplak-bilketa gutxi ditugu, zoritxarrez. Horrek ez du esan nahi askoz lehenagokoak ez direnik, gorago ikusi dugun bezala. Nahiz eta koplak-bilketa zaharrik ez dugun, baditugu koplak aspaldi kantatzen zirelako frogaz argigarriak. Uste dugu udal-agiri askotan ikusi daitezkeela koplak kantatzeagatik kendutako multa edo isunak. Gu ez gara era horretako lanketan abiatu baina aipamen bat edo beste aurkitu dugu. Uste izatekoa da askozaz gehiago egongo direla. Guk bi baino ez ditugu ekarriko. Lehena Markina-Etxebarriko on Bernardino abadeak idatzia da berak zuzentzen zuen parroki- horrian. Hona *Gure Erria* aldizkariko 1957ko, Otsailaren 14 zenbakian, lehen orrialdean agertzen dena:

«¿Santa Ageda zein izan zan? Santa Ageda besperan kantuan ibiltea ez da oingoa. Orain 258 urte etorri zan Obispoa Etxebarriara eta ikusirik zelako zalapartak egiten ziran, Elizako kanpaiak ez joteko Santa Ageda bezperan agindu eban. Joten zituenak exkomulgauta geldituko ziralak».

Gertaera hau, itxurak direnez, 1699koa da. Zalapartak egiten ziren kanpaiak joaz, baina ez da esaten kantatzen ibiltzen zirenik. Aurkitu dugun bigarren adibidea guri dagozkigun erronda-kantuen berri ematen du (lehenago aipatu Isidor Baztarrika *Jaunaren deia*, 1982, 73. or.):

«El año 1702 la villa prohíbe «salgan por Santa Agueda y al tiempo de bodas ninguna persona a pedir limosna ni cantar pena de 1000 mrs. por cada vez y 15 días de carcel y además se procederá por inobedientes a este mandato».

«El año 1894 seis mozos de Arinbarrioa durante dos noches que anduvieron de casa en casa cantando coplas de Santa Agueda recogieron seis cestas grandes de pan (sei lepasaski), 18 docenas de huevos, abundante tocino y chorizo y 40 pts. en metálico. En algunas casas les dieron un pan de kilo y una docena de huevos.»

Bi testigantza hauetako lehenean, eskean ibiltzeagatik mila marabidiko multa kenduko dutela dio. Lehen testigantza hau oso hurbil dago denboran gorago jarritako Markina-Etxebarriakotik. Duela mende bateko Ataungoak zernolako sariak hartu zituzten dio. Euskarazko azalpena «sei sepasaski» ez da udal-agirikoa, artikulua egilearena baizik.

## XIX MENDEKO TESTIGANTZAK KANTUTEGIETAN ETA ABARRETAN

Hemezortzigarren mendean dugun kantutegi bakarretakoa Patri Urkizuk argitaratu da. Kantutegi horren izenburua «Recueil de quelques pièces de vers anciens et nouveaux-1798» da, eta ez dugu guri dagokigun moduko koplak zaharrik aurkitu. Hemeretzigarren mendekoetan ere ezer gutxi. Augustin Chahok bi aldiz-

karitan argitaratzen zituen kantuak *Ariel* eta *Courrier de Vasconie*. Bi aldizkarietan *Ariel* osorik ikusi dugu eta *Courrier de Vasconie* arakatzeko betarik ez dugu izan. Chahoren kantutegia goitik behera traskribatzeko astia hartu dut, hala ere. Kantutegi honetan ez dut eske kopla zaharrik aurkitu. 1857an *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Paris: Didot, 1857 (547 or. 22cms) lanean ere beste hainbeste. Madame de Villehelio (izenez, Julie Adrienne Carricaburu Roger 1827-1898) zuberotarrak argitaraturiko *Souvenirs des Pyrénées. Douce aires basques choisis et notés* liburuxkan ere ez dago ezer. Guk, jakina, Aita Donostik argitara emandako BRVAP, 1954, X, 309-337 or. horretan ikusi dugu. J. D. J. Sallaberryren *Chants populaires du Pays Basque* lanean, 1870koan, ere ez dago eske koplarik. Askoren artean egin zen *Tradition au Pays Basque* lanean, 1899urtekoan, ere ez dago ezer. Ezagutzen dugun guztietan aberatsena Julien Vinsonen *Le folk-lore du Pays Basque* dugu. Liburu honen ataltxo bat, 230-233 artekoa, «Chants de quête» delakoa da. Hona zer dioen:

## I

Le dimanche de la Chandeleur (2 fevrier ou jours suivants) les enfants de la commune de Sare se rendaient, il y a une cinquantaine d'années, au pont de portua, situé à l'entrée principal sur la route de Bayonne, et là, ils s'amusaient à se jeter des pierres d'un bout du pont à l'autre. Cet amusement a eu trop souvent de déplorable conséquences.

Le même soir, ils se réunissaient et parcouraient le village en tenant à la main de grands bâtons au bout desquels étaient fichées des chandelles de résine, et ils chantaient:

*Igande chiribitakoa,  
Goizik afaritaina!  
Eltzean urde kochko:  
Guzietan mama gocho!*

(M. C. Dihursubéhère, Sare, 21 octobre 1881)

## II

Dans le pays de Soule, les enfants, armés de bâtons, parcourent les villages le premier jour de l'an en frappant aux portes et en chantant:

*Pika, haur! haur! haur! haur!  
Sagar eta intzaur!  
Pika hera! hera!  
Sagar eta pera!  
Estrena  
Ahalik haboroena!  
Besterik ezpada,  
Artho tresna!*

(Archu, 13 novembre 1854)



M.J.DJ. Sallaberry me fait observer que, dans certains endroits, cette coutume s'observe, non le jour de l'an, mais le jour des rois (en souletin Apharizio).

### III

Dans quelques communes de la Soule, les jeunes gens se présentent, le soir du 24 décembre, devant les maisons où il est né un enfant dans le courant de l'année, et chantent ce qui suit:

*Sühülaio liu lao!*  
*Etcheto gainean sühülaio!*  
*Etcheto gaineko haurtto hori*  
*Zilhar kaideretan dago:*  
*Zilhar eta zilhar tresnak,*  
*Etchen behar diren gaizak;*  
*Etcheto gaineko haurtto hori*  
*Aingürrien bihotzeko:*  
*Etcheto gaineko jaun anderiak*  
*Hoiek dira zirentako!*

(Archu, 13 novembre 1854)

M. Sallaberry m'écrit que cet usage n'existe pas en Soule, mais, à sa connaissance, dans le pays de Mixe et à Saint-Palais. Il corrige *chirulao*, *etche-tto*, *aingurien*.

### IV

Lorsque le quêteurs sont contents de la quête, ils chantent:

*Etchek' anderia, eman düzü ederki,*  
*Kumpañak re badaki;*  
*Zelian sarthüren zira hamabi aingürüeki.*

Si les quêteurs sont mécontents, ils chantent, au contraire:

*Etchek' anderia, eman düzü tcharki,*  
*kumpañak ere badaki;*  
*Ifernian sarthüren zira hamabi debrüeki.*

(Sallaberry, 18 mai 1883)

Testigantza hauek guztiak gehiegi izan ez arren, dauzkagun ia bakarretakoak dira. Zergatik? Artean jakintsuek ez zietelako eske-kantuei beren balio handia eman. Eske kantuen benetako balioa XX mendeko bigarren hamarkadan emango zieten. Azkue handiak bere *Euskalzale* (1898, Epaillaren 3, 69. or.) aldizkarian agertzen duen testigantza lehenetakoa da. Hona:

- |  |  |
|--|--|
| <p>1 <i>Keriza txiki betea<br/>aurten da zure urtea:<br/>Orain emendi kantauko dogu<br/>Etxeko Iaunen koplea.</i></p> <p>2 <i>Etxe onetako ugazaba iaunak<br/>Urregorritzko bizarra,<br/>Urregorritzko bizarra eta<br/>Azur ta mamin ezpada.</i></p> <p>3 <i>Etixerik eta Elizaraño<br/>Erreal bikoz kaltzada,<br/>Erreal bikoz kaltzada eta<br/>Peseta berriz plazara.<br/>Aien gaiñetik etxeko iauna<br/>ibiltan da Mezatara.</i></p> <p>4 <i>Arantza-baltzak orria txiki<br/>puntarantz dauko lorea.<br/>Etxeko andara noblearentzat<br/>orai eldu da suertea.</i></p> <p>5 <i>Bera notadu bear da lenengo<br/>alargun bedeinkatea:<br/>begiratuta bere etxean<br/>dirudi erregiña.</i></p> | <p>6 <i>Berriz bidean dabilenean<br/>ziertu soberanea:<br/>Santa Agedak gorde daiola<br/>gaur daukan ermosurea.</i></p> <p>7 <i>Ortxe goian errota<br/>Uruna ongi eiota,<br/>Etxe onetako etxeko Andrea<br/>Santa Agedaren debota.</i></p> <p>8 <i>Santa Agedaren debotatzurik<br/>bein bere ezta galtzien<br/>bir milla Aingeruk laguntzen dio<br/>bera dan leku guztien.</i></p> <p>9 <i>Zaldi eder bat ekarri diot<br/>Kanpoti etxeko iaunari:<br/>orrenbesteko erregalu bat<br/>ezteusat egin iñori.</i></p> <p>10 <i>Aren gaiñean jartzen danean<br/>bere ezpatea artuta<br/>denpora asko pasau bagarik<br/>dago Madrillen sartuta.</i></p> |
|--|--|

Nota hauek santa Agedaren bizitzaren ondoren kantatuak dira Bilbo ondoko Etxebarri herrixkan. Ez ditugu hona aldatu santa Agedaren bizitzaren berri ematen duten koplak gure lana gehiegi ez puztearren. Badu sail honek edertasunik. Nagusiari zaldi bat ekarri diola dio Madrilen bizkor agertzeko. Hiri handiak agertzeko joera hori nabarmena da koplaz zaharretan. Hiri handietan jauregiak eta handietxeak ez ezik, Erregeren gorrea ere egon ohi delako. Zaldi gainean, gainera, ezpata hartuta joango da. Nola ez? Garai bateko Erdi Aroko kutsua alderdi guztietatik darie koplaz zaharrei.

## LEHEN GEHIGARRIA

Lehen gehigarri hau Donostiako Koldo Mitxelena liburutegiko ondarean agertzen den koplaz-bilduma ederra da. Dokumentuaren izena: «Urte-zar, Eguarri, San Nikolas, Iñauteritan ta Santa Agedatako koplaz zarrak». Bilduma hori nongoa den ere badakigu: Oiartzungoa. Koplaz bakoitza paper batean idatzia dago. Badirudi koplariak buruz ikasteko edo kantuan ari zela gogoratzeko koplaz bakoitzari paper karratu bat eskeini ziola. Koplariak egin ohi zuena egin ote zuen biltzaileak? Biltzailea Miren Pilar Lekuona dugu. Garai bateko koplariak –denek ez bazuten egiten ere, zenbaitek egin zezaketela dirudi- egin ohi

zutena egin bide zuen berak ere: koplak bakoitzari paper bat eskeini. Koplak bilketa hau nola egin ote zen? Erantzuna bilatzen aritu ondoren, hona zer aurkitu duan. *Euskal Esnalea* aldizkariak egindako deialdi batera hainbat koplak bilduma agertu ziren. Bai koplak batzuk argitaratu ere. Gure sail honek «Nik zaldi ttiki-ttiki bat illa non den badakitt» lema du eta lehen paperean biltzailearen izena. Badirudi agertu ziren bilduma guztietatik gutxi batzuk baino ez zirela argitaratu *Euskal Esnalea* aldizkarian. Gutxi horietatik, gainera, zati bat edo pusketak baino ez. Gure oraingo hau 1931-Dagonil-Irail-Urril 32-33-34 zenbakia «Santa Ageda kantak», 175-177 or. argitaratu zen. Santa Agedaren bizitzaren berri ematen duten koplak baino lehen, argitasun hauek agertzen dira:

«EUSKAL-ESNALEA'K eragindako batzaldira salla eder eta bikaña etorri zitzaigun. Batzuen-batzuk, askoren artean, aukeratzea, ez da asmabide egokiya izaten, irakurleen gogoia oso-oso asetzekotan batez ere. Aukeraren maukera, okerrena.

Bateri au gogoko: besteari alako, ez dakigu zein lili aukera, baratz-ate-ondoan daudenai alaikun zakona ezartzeko.

Beste-alde berriz, ezin argi-matazetara igorri genezazkike begi-aurrean dauzkagun paper-txorta danak. Euskal usain gozoa orok duten eskeroz, txortetara jo degu, irten-ala argitaratu ditzagun.

Ona emen, txorte-mortez atera zaizkigunak. Lekuona'tar Miren Pilarrek bilduak dira.»

Miren Pilar Lekuonaren bilduma honetan guztira ehun eta hirurogeta sei paper-puska daude. Guk lan honen gehigarrian denak transkribatu ditugu 138 zenbakitik 145 zenbakietara bitartekoak izan ezik. Zenbaki hauetan Altzoko bertsolariak jarritako zazpi bertso daude. Gure lan honetako asmoa koplak zaharrak agertzea da eta ez bertsolariak jarritako bertsoak. *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratuak 153 zenbakitik 166 zenbakira bitartekoak dira. Bilduma osoko azken hamalau koplak, beraz. Badago besterik ere, *Euskal Esnalean* argitaratuak ez dira eskuidatzitik egindako transkripzio zuzenak, apurren bat orratzuak edo txukunduak baizik.

Bilduma zoragari honen titulua liburu-azal batean dago. Liburu hori Isaac Lopez Mendizabalen *Manual de Conversación Erdera=Euzkera segunda edición* 1918. Liburu azal horretan, gorago esan dugun bezala, biltzailearen izena ere agertzen da. Biltzailearen izena garai hartako erara agertzen da: Lekuona'tar Miren Pilar. Bilduma, beraz, 1918koa edo geroagokoa da inolaz ere. Gutxi gora beherako data honek izan dezake zehaztasun handiago bat. Zergatik? Oiartzungo alkatearen notan, «Pedro Arbide Aldakokua» izena agertzen delako. Pedro Arbide honen agintaldia Oiartzunen 1926ko otsailaren hamairutik 1928ko urriaren bederatzira artekoa izan zen. Koplak kantatu ziren garai zehatzago bat badugu, beraz. Horrek ez du, hala ere, bilketaren zehaztasunik ematen. Badakigu, koplak 1927an edo geroago bildu zirela, 1926an ezinezkoa baitzen kantatzea, artean, Eguerrietan Pedro Arbide ez zegoelako alkate. 1931 urtean argitaratu bazen, badugu beste zehaztasun bat. Koplak bilduma hau 1928tik 1931urteen artean egin zen.

Orain goazen beste sail batera eta hitz egin dezagun biltzailearen gainean. Zein da Lekuona'tar Miren Pilar? On Manuel Lekuonaren arreba izango ote zen susmoa izan genuen. Baita asmatu ere. Maria Pilar edo Miren Pilar Lekuona Manuel Lekuonaren arreba izan zen. Bederatzi neba-arreba edo sendieren artean Miren Pilar zazpigarrena izan zen. *Argia* astekariko korrespondentsal edo idazle izan zen 28 urterekin ezkondu zen arte. *Argia* astekariko artikulua «Mirentxu» izenez izenpetzen zituen. Zehaztasun hauek berorren alaba Pilarrek eman dizkit. Baita jaiotze eta heriotze datak ere: 1906-1999. Behin honetarako gero, hainbat galdera erretzen dira. Miren Pilarren koplak eta Manuelenak berdinak dira? Miren Pilarrek Manuelek egindako uztaik ere hartuko ote zituen? Miren Pilarrek Oartzunen jasotako koplak asko ez dira on Manuelen bilduman agertzen. Bestela esan, Miren Pilarren Oartzungo bilduma on Manuela baina aberatsagoa da. Aberastatu hori, uste izateko denez, koplari aberatsago bati biltzetik datorke. Baliteke, bestaldek, Oartzungoak ez diren zenbait koplak on Manuelen bilketatikoak izatea, baina, jakina, azken hau gure ustea da. Eta uste guztiak edo gehienak bezala erdi ustel atera daitezke. Miren Pilarren bilduma hau gure lan honen aberagarri eta hornigarri agertu dugu, guk ezagutzen dugun koplak-sailik polit eta xarmantena delako. Polit izateaz gainera, ez da, nik dakidala, bere osoan inon argitaratu.

Behin kontuak honetara, egin dezagun beste galdera bat. Koplak hauek zertxobait ukituak ote daude? Lehen koplak zertxobait ukituak egon daitezkeela dirudi. Baina honetan ere ezin dugu ezer ziurtatu. Garai bateko hitz asmatu-rik edo garbi usainekorik ez dago. Lege zaharrako koplak-saila dugu, inolaz ere. Pentsatzekoa da herri berean ere koplak berak edo beretsuak kantatu arren, koplari batetik bestera alde apurren bat izango zela. Gainerako Oartzungo bildumekin erkatzeko modua izan dugunez, eman ditzagun zenbait adibide. Manuel Lekuonak bildutakoetan «La Poesía popular vasca» *Quinto congreso de estudios vascos 1930*, Nueva Editorial 1934, 132-174 or. Honela datoz: 1) Be-deinkatua, alabatua/ Aldareko Sakramentua;/ pekatuaren mantxarrik gabe/ zeña dan kontzebitua. 2) Au aiziaren epela!/ Airian dabil orbela;/ etxe ontako jende leyalak,/ gabon Jainkoak diyela. 3) Zapata txuri paperez; euri denian bate-rez;/ Nagusi Jauna, esan bizaigu/ asiko geran edo ez. 4) Gizon txiki bat golbero;/deitzen diyote barbero;/ /lizentziyarik izan ezpalitz/ esan ziguten gaurgero. 5) Lezo ta Errenterriya;/ irugarrena Oyartzun;/ nere lagunak, *Dios te salbe!* garbuarekin erantzun. Coro: *Dios te salbe!* Ongi etorri!/ Gabon Jainkuak diyela!/ Legiarekin konple dezagun/ Urte-berriren sarrera.

Beharbada lehen sei koplak hauek ematen dute Manuel Lekuona eta Miren Pilar Lekuonaren arteko aldetxoak. Batean «baimen» hitza agertzen da, bestean «lizentziya». Batean «sortua», bestean «kontzebitua» eta abar. Urtezaharretako hasierako aldaerak zilegi hauezaz gainera, –koplari batetik bestera egon daitezkeenak, hain zuzen–, koplak-saila ez dago inondik inora ere, guztion zorionean, txukundua ez garbitua. Uste dut, hemen ere, Lekuonatarren herri literatura sen jatorra garbi bezain argi ikusten dugula. Herri sen jatorra ez

ezik, mendez mendeko ohitura jatorra guganaino iritsi den bezala jasotzeko arreta zentzuzkoaren erakusgarria ere bada koplak-bilketa hau.

## KOPLAK GURE TRANSKRIPZIOA DELA ETA

Nola aldatu koplak gure artikulura? Ez dugu pentsatu gure aldizkari honetako irakurle landuari gaurko ortografiara egindako transkripzio bat ematea biderik egokiena denik. Koplak jatorrizko iturrian dauden bezala aldatzen ahalgindu gara, beraz. Egin dugun aldaera bakarra r eta l gangarduna, -rr- eta -ll- transkribatzea izan da. Hutsen bat zuzendu dugunean, parentesi artean jarri dugu zuzenketa. Ondo irakurtzen ote dugun seguru ez bagaude, parentesi artean jarri dugu galde-marka. Koplek duten numerazioa dela eta jatorrizkoa jarri dugu geure lanean. Zergatik? Norbaitek jatorrizkoarekin erkatu nahiko balu, askoz errazagoa izango lukeelako lan hori. Numerazioaren kontu horretan badago zerbait hona aldatu ez duguna. Etxeko bakoitzaren paper-puskaren ondoan beste numerazio bat ere jarri du. Eman dezagun parrokoaren koplak, parrokoaren notak gure deitzeko moduan, 19-24 artekoak direla. Zenbaki horiek ezkerretara izango du paper bakoitzak. Baina ezkerretara zenbaki-era berria izango du. Hemeretziak 1, hogeiak 2. Era horretara, badakigu 6 kopla dituela parrokoak. Sei kopla hauetatik gure notak izendatzeko moduan 5 nota lirateke. Hirugarrenak eta laugarrena nota konposatu bat egiten dutelako.

Era horretara, lehen zenbakia duen paper-puskak «Urte-Zarretan» jartzen du. Bigarrenak «Sarrera» hitzaren azpikaldean ohartxo bat. Honela dio («Oarra: Nunguak diren ez diotenak Oyartzun'guak dira»). Bilduma honetan gehien harritzen gaituena duen aparteko aberastasuna da. Etxekoen zenbait nota hemen bakarrik ikusi ditugu. Bizkaiko notak eta Zuberokoak ere harritu gaituzte, baina ezagunak dira, inolaz ere. Harrigarrienak Oiartzungoak berekoak eta Nafarroakoak dira.

## URTE-ZAR, EGUARRI, SAN NIKOLAS IÑAUTERITAN TA SANTA AGEDATAKO KOPLA

- |  |  |
|--|--|
| <p>3 <i>Bedeinkatua, alabatua<br/>aldareko sakramentua!<br/>Eta pekatu-kutsurik gabe<br/>Birjiña garbi sortua!</i></p> | <p>5 <i>Zapata txuri paperez,<br/>euri denian baterez;<br/>Nagusi Jauna, esan bizaigu<br/>asiko geran edo ez.</i></p>          |
| <p>4 <i>Au aiziaren epela!<br/>airian dabil orbela;<br/>etxe ontako jende leyalak<br/>gabon Jainkoak diyela!</i></p>   | <p>6 <i>Gizon txiki bat golbero<br/>deitzen diyote «barbero»;<br/>baimenarikan izan ezpalitz<br/>esan ziguten gaugero.</i></p> |

- 7 *Lezo ta Erreteriya,  
irugarrena Oyartzun;  
nere lagunak Dios te salve  
garbuarekiñ erantzun.*
- 8 *-Dios-te-salve! Ongi etorri!  
-Gabon Jainkoak diyela!  
Legiarekin kumpli dezagun  
Urte berriren sarrera.*
- 9 *Urte berriren sarrera da ta  
eskian gatoz atera,  
Birjiñ Amaren Seme garbiya  
dijualako pontera.  
Guztiok: Dios-te-salve!*
- 10 *Santi Silvestrek ekarri digu  
izar eder bat giyari,  
gaba ementxen igarotzeko  
ate onduan kantari.  
Guztiok: Dios-te-salve.  
(Naparrukua)*
- 11 *Juntaturikan etorri gera  
kompañia bat fidela:  
agur etxeko jente leialak,  
Jainkuak gabon diela.  
Guztiok: Dios-te-salve.  
(Naparrukua)*
- 12 *GUZTIOI*
- 13 *Gabon Jainkuak, Nagusi:  
Txapela dizut erantzi;  
zuregandikan orain bear dut  
kantuz asteko lizentzi.  
Guztiok: Dios te salve. (6)*
- 14 *Eder Elizan liburu,  
usuak aren inguru;  
Etxe ontako txiki-aundiyak  
paradisuan aingeru.*
- 15 *Eder Elizan aldare  
arri labratuz pillare;  
Birjiñ Amaren maitatzalliak  
etxe onetan dirade.*
- 16 *NAGUSIARI*
- 17 *Lagunak asitzen zaizkit  
aldamenetik legatzen:  
asiko baniz asi nadilla  
Nagusi jauna koplätzen.*
- 18 *Uso txuriyak kotara,  
nere begiya lotara;  
Nagusi jauna, oraintxe nua  
berorren koplætara.  
(Naparrukua) Parrokua bada.*
- 19 *Etxean eder mandio,  
mandazai orrek adio;  
erri ontako, Yaun Erretoreak  
zazpi erreinen balio.  
(N)*
- 20 *Etxean eder gerrena,  
gerrian goru-kertena;  
erri ontako Yaun Erretora  
Paradisuan goiena.  
(N)*
- 21 *San Gregorio-n atari  
argin-maisuak ezarri;  
erriko gure Yaun Erretora  
antxe sartzean ederki.  
(N)*
- 22 *Antxe sartzean ederki eta  
ateratzean obeki;  
ateratzean obeki eta  
bidez yoaitean egoki.  
(N)*
- 23 *Mantu beltza lurreraño,  
kabardiña erdiraño;  
Yaun Erretorak parerik ez du  
Salamanka-tik onaño.  
(N)*

(6) Beti berdiñ, kopla bat edo biren ondolik....

- 24 *Oin zuri zapatapeko  
aztal txuri galtzetapeko;  
eskuak berriz kontsagratuak  
Sagaran Jauna altxatzeko.*
- (N) *Apaiza bada:*
- 25 *Elizan eder liburu  
urre albiñuz inguru;  
Etxe ontako Apaiz Jaun ona  
Paradisuan aingeru.*
- (N)
- 26 *Sagarra da sagartzean,  
erori da lur otzean;  
etxe ontako apaiz jaun onak  
sei aingeru biotzean.*
- (Urkiakua)
- 27 *Eder eskuan kaliza,  
soñean sobrepeliza.  
Txit sermolari sonatua da  
etxe ontako apaiza.*
- (N)
- 28 *Ezkillak errepikatzen,  
jendiak zer dan galdetzen,  
etxe ontako apaiz jaun ona  
aingeruekin mintzatzen.*
- (N) *ALKATEA BADA:*
- 29 *Oyanian zein den eder  
arbola luze lerdena;  
Jaun erretora lenengo eta  
alkate jauna urrena.*
- (N)
- 30 *Sagar gorri gezatea,  
gerrian bere ezpatea;  
Pedro Arbide Aldako' kua  
Oyartzun' go alkatea.*
- ETXEKO JAUNA BADA*
- 31 *Orroko or goyan elorri,  
ondua jota erori,  
itxi ontako Nagusi Jaunak  
Errejidore dirudi:*
- 32 *Esku txuritan papera,  
mayian urrez platera;  
lotsa gogorrez eldu gerade  
jauna berorren atera.*
- 33 *Eder soluan goldia,  
soñian kapa moria;  
etxe ontako Nagusi Jauna,  
ondo gizontxo noblia.*
- 34 *Ardiak dabilta larrez,  
belarrez ase bearrez;  
etxe ontako Nagusi Jaunak  
bular arteak zillarrez.*
- 35 *Eder zeruan izarra,  
errekaldian lizarra;  
etxe ontako Nagusi Jaunak,  
urre gorritz du bizarra.*
- 36 *Urre gorritzko bizarra eta  
zillar zurizko espalda,  
errial bikoz egiña dauka  
elizarako galtzada.*
- Antzuola*
- 37 *Errial bikoz galtzada eta  
lau zurikoz ataria;  
etxe barruan betik goraño  
zillarrez eskillaria.*
- 38 *Eskillaratan bueltatu eta  
kuarto txiki bat berria;  
aretxek zeukak lau kantoietan  
igeltsu orde z urria.*
- 39 *Etxe ontako Jaun zalduna  
Jesukristo' ren laguna;  
biar ta askotan goza dezagun  
Urte-berri jai-eguna.*

## MUTIL ZARRA BADA

- 40 Nagusi Jauna barkatu  
ezpana(i)z ongi mintzatu;  
ustez beñepeñ seaskan aurrik  
eztizugu gaur esnatu.
- 41 ETXEKO-ANDREARI
- 42 Nagusi Jauna, barkatu,  
ezpanaiz ongi mintzatu;  
zure baimenez nai nuke oraiñ  
Etxeko andria koplatu.
- 43 Eder intxoren kordena  
alaxen degu ordena;  
Etxeko Andria koplaturtzeko  
Nagusiyaren urrena.
- 44 Emen burrunzti deitzen diyogu  
Napar aldian gerrena.  
Etxeko Andrea kopladezagun  
nagusiyaren urrena.
- 45 Baratzan dago txermena,  
ondotik gora lerdena;  
Etxeko andrea kopladezagun  
Nagusiyaren urrena.
- 46 Orrako or goyan errota  
iriña dago iyo-ta.  
Etxe ontako Etxeko Andria  
Birjiñ Amaren debota.
- 47 Orrako or goyan elorri,  
ondua jota erori;  
Etxe ontako Etxeko Andriak  
Ama Birjiña diruri.
- 48 Gure soroa sakona dago,  
aldamenean egia;  
San Pedro txikiz edí nedilla  
esan ez badet egia.
- 49 Gure soroa sakona  
orra Etxeko Andre ona;  
Pazku goizean jantziko ditu  
bere soñean sei gona.
- 50 Txuri nabarra azpiko,  
gorri ederra gañeko;  
Andria zure parerik ez da  
plaza bat ondraturtzeko.
- 51 Zaia duzu lurreraño  
sederia erdiraño;  
zure parerik ez dela jaió  
Londres'tik eta onaño (7).
- 52 Etxe ontako Etxeko Andria  
zaldiz da elizaratzen  
zaldiz da elizaratzen eta  
zilarrez du ofrendatzen.
- 53 Andik etxera datorrenian  
urre-sillan da jarritzen  
txokolatia artu artian  
ez dek andixik mugitzen,  
txokolatia artutakoan  
kalera pasiatutzen.
- 54 Eder basuan ezipela,  
nik eziñ esan bestela;  
zure besoan lo egiñ leike  
paradisuan bezela.
- 55 Ametzak eder azala,  
aritz gazteak bezala;  
Etxeko Andrea etxe onetan  
ba-dago zure bearra.
- 56 (Naparroa)  
Alarguna ba'da:  
Aristuz danok leiotik  
batetik eta bertetik;  
emen bizi den alargun onak  
urre zakuak kutxatik.
- 57 ETXEKO SEMEARI
- 58 Illarra zaigu loratu,  
oraindik ez da lekatu.  
Etxeko Seme ezkongai ori  
orain nai degu koplatu.

(7) Jatorrizkoan [...]/ Londres'tik eta onaño.



- 59 *Urian eder antzara;  
Etxeko Seme nun zera?  
Gu emen guaz mundurik-mundu  
limosnatxo bat biltzera.*
- 60 *Eder urian antzara.  
Etxeko seme non zera?  
Gu zuregana etorri eta  
iñon ageri etzara.  
(Napar.)*
- 61 *Urian eder lotria,  
aren gañian kofria;  
Etxe ontako mutill gaztiak  
kutxan daduka dotia.  
(Goierrri)*
- 62 *Orroko or goyan iturri,  
ura txorrotik erori;  
Etxe ontako zaldun gaztiak  
amalau urre-txintzarri.  
(Goierrri)*
- 63 *Amalau urre-txintzarri eta  
zazpi damaen eguzki;  
oyek guztiyok ala izanik  
geyago ditu merezi.*
- 64 *Au arratsaren illuna!  
Etxeko seme zalduna,  
orla bakarrik txarki zaude ta  
bear zenduke laguna.  
Mutill-zartzen badijoa:*
- 65 *Orroko or goyan antzara,  
Praxkantonio non zara?  
Kaxka urdintzen asi baño len  
zertan ezkondu etzara?*
- 66 **ALABARI**
- 67 *Arantza beltzak ostua txiki  
udaberrian loratsu;  
oraingotikan bear genduke  
dama gazte bat koplatu.*
- 68 *Etxeko Alaba non zera?  
Iñun ageri etzara.  
Atoz lenbailen ate-ondora  
gabeko illunak kentzera.*
- 69 *Emen eldu naz bellari....  
gabak eguna diruri;  
nik bear nuen dama gaztia  
amak lo ote ezarri?  
Nik irazarri al ba'nezake  
asi biar dut kantari.*
- 70 *Larre gorrian eperrak aide,  
pagadietan usua,  
neskatxa gazte airosua da  
Paula Mendiberrikua.*
- 71 *Xulufriña ta larrosa  
andere (i) eder garbosa;  
Naparruako Errege Jaunak  
zu omen zaitu promesa.*
- 72 *Orroko or goian otia,  
guziya lorez betia;  
etxe ontako dama gaztiak  
kutxan daduka dotia.*
- 73 *Iru seme ditu amak eta  
iruetan bat arrosa;  
ederren ori zuretzako da  
neskatxa eder garbosa.*
- 74 *Etxeko alaba, non zera?  
Iñon ageri etzara.  
Lau galai gazte ditut eta  
jarriko dizut aukera;  
neroni ere gayian nago  
baldiñ gustatzen ba'zera.*
- 75 *Arrosa, lilia, lore,  
zure masallen kolore;  
gaztetan ama ederra ba'zan  
ba-zera bat-txo zu ere.*
- 76 *Damatxo txukun, garbiya,  
azal piñ txuri gorriya;  
zure masalla iduritzen zait  
krabeliñaren orriya.*

- 77 *Krabeliñaren orriyarekiñ, arrosa Mayatzekua: zuri begira ementxe nago damatxo biyotzekua.*  
Neskazarra bada:
- 78 *Orroko or goyan antzara, Joxepiñazi non zara? Beste guztiyak ezkondu eta zu zertan egiñ etzara?*
- 79 **ESKEA**
- 80 *Orroko or goyan ermita, San Gregorio deritza; ango prailiak agindu eta limosna biltzen gabiltza.*
- 81 *Etxeko Andre zabala, toki oneko alaba; bidian nator informaturik emalle ona zerala.*  
(Napar.)
- 82 *Supazterrean jarririk musua gorri-gorririk; guri zerbaitxo ematearren jeiki bear dezu ortik.*
- 83 *Landan eder mitxeleta, Goyerriyan Amezketa; guk ere zerbait merezi degu andikan etor(r)i-eta.*
- 84 *Prantziyatikan Españiya-ra etorri zaigu kazeta: etxe ontatik ateratzeko erriela ez bada pezeta.*
- 85 *Gaztain egosi intxaurrek eta sagarrarekiñ ogia; berdin da ekartzen ba-diguzu urdai puska bat lodia.*
- 86 *Dios te salve, bakallo jale, bost eta sei amaika; txorixorikan ez baldin ba' da igual dela lukainka.*
- 87 *Lukainkatxuari tiraka zebilek sillatxuaren ganetik; bat delakuan bi askatuta or ekarriko al dizkik.*
- 88 **ESKERRAK**
- 89 *Eder ezpata magiarekiñ, magia prontalarekiñ; etxeko Andria etorri zaigu eskupeko ederrakin.*  
(Napar.)
- 90 *Eman diguzu ausarki konpañak ere badaki; eman diguzun diru orrekiñ egingo tugu tortxa bi.*
- 91 *Tortxak bear du arie, ariek argizarie; danok onela emanezkero bigar a! zer aparie!*  
(Napar.)
- 92 *Eman diguzu ederki, kunpañak ere ba-daki; zeruan sartuko zerade zu amabi aingerurekiñ.*
- 93 *Arboletan den luziena da ibai-ertzean makala; neri eskia eman didana Jainkuak bedeinka (de)zala.*  
(Urkia ?) (8)
- 94 *Errekan dago igela, preskoa dauka gibela; orain emendik bagoaz eta gabon Jainkoak diela.*  
(Zubero)
- 96 *Baratzan (9) da belar on, gabek eman ttu lau oron: gu ba' goatzi emendik eta Jainkoak diela gabon.*

(8) Ez dut ondo irakurtzen zein herritakoa.

(9) «Baratzan» horren gainean e dakust, «Baratzean», beraz?

- 97 *LIXTORRAK* (Napar)
- 98 Ari naizela, ari naizela  
nekatu zaizkit ezpañak;  
etxe ontatik espero ditut  
errial bi ta gastañak.
- 99 Ematekotan emazu,  
bestela ezetz esazu,  
ate-onduan otzak iltzera  
amak ez gaitu bialdu.
- 100 (Napar.)  
Etxe ontako Etxeko Andria  
ezin jeiki da oietik:  
sangri txiki bat komeni luke  
i...-zuloko zañetik.  
(N)
- 101 Urian eder xalanta,  
airian eta galanta;  
itxe ontako Etxeko Andria  
alperra eta garbanta.
- 102 (Antzuola)  
Etxe ostian asuna,  
Etxeko Andre lizuna;  
eman bearrak egiten dizu  
estemanguko illuna.
- 103 (Napar.)  
Goazen goazen emendik  
emen ez ditek urdairik;  
etxe ontako gazi kutxean  
saguak ume egin dik.  
(Goierra)
- 104 Armariuan sagua,  
arri begira katua;  
etxe ontako limosnarekin  
ez-tek beteko zakua.  
(Bizkaia)
- 105 Or goien goien landetan,  
eperra dabil kantetan:  
etxe ontako ugazabeak  
k--- egin dau praketan.
- 106 *Dios te salve, bakallo jale,*  
legatza balitz obia;  
Itxi ontako Etxeko Andriak  
atorra k.. betia.  
(Antzuola)
- 107 Eder kakuan uztarri  
gure astuak p... bi;  
bata etxeko Jaunarentzako,  
bestia Etxekoandriari,  
gañerontzeko txiki aundiak  
muñ ip... alkarri.  
(Antzuola)
- 108 Mendi altuan gau illunian  
pasiatzen du otsuak;  
lepa-zorriak itoko al ditu  
etxe ontako atsuak.  
(N)
- 109 Akio eta makio!  
lepua austen ba-lakio!  
Ni mediku eta zu barbera  
sendatzen ezpalakio!...
- 110 *OSTATURAKO*  
(Aya)
- 111 Astoak on dik oloa,  
idiak arto-lastoa;  
festa onetan edan dezagun,  
Petiri, ekar ardoa.
- 112 (Aya)  
Eder olaan gabia,  
larre onean ardia;  
Nafarra baño obe diagu  
Zaragozako zuria.
- 113 *OLENTZERO-EGUERRITA-  
RAKO KANTAK*  
(BETERRIKOAK)

- 114 *Emen eldu gerade  
berri on batekiñ,  
gaur Belen'en jayo dan  
Aurtxo Jesus' ekiñ.*
- 115 *Otzak dardaraz dago  
askatxar batian,  
siaskatxorik gabe  
negu gogorrian.*
- 116 *Josepe gizon ona  
arotza zera zu  
aurtxo polit oneri  
siaska egiyozu.*
- 117 *Artzai buru txuri bi  
Antton eta Peru,  
Belengo estalpera  
etorri zaizkigu.*
- 118 *Sartu dira barrena  
Manueltxo' gana;  
presente egin diyote  
arkumetxo bana.*
- 119 *Batek arkumia ta  
bestiak ardiya;  
alkar aditzen dute  
Jose ta Mariak.*
- 120 *Agur! eskerrik asko  
agur etxeakuak!  
Urrengo urte-arte  
emendik ba-guaz.*
- 121 **GABON-EGUARRITARAKO  
KANTAK  
(GOIERRIKOAK,  
URKIAKOAK)**
- 122 *Joles ta joles! Etxekotxoak,  
nik jotzen ditut ateak;  
nik jotzen ditut ateak eta  
ondo erantzun jendeak.*
- 123 *Agur ta (i) agur, jende leialak,  
gaur berri on bat dakargu;  
ernai dagola pixka batian  
iñork aditu nai badu.*
- 124 *Adan da (i) Ebak egin zutean  
Paradisuan pekatu;  
gure lan eta neke guztiyak  
andikan ziran gertatu.*
- 125 *Jaun zerukoak orduxetikan  
nunbait zuan asmo artu  
gero denboraz Adan berri bat  
bearko zuala sortu.*
- 126 *Eba berria Josepe-rekin  
Belenen degu topatu:  
ango estalpe xar-xar batean  
arkitu dute ostatu.*
- 127 *Deo gracias joles ta joles  
guztiok gabon-gabea!  
Belen'dik gatoz poztu-pozturik  
Jesus an jaio denean.*
- \* \* \*
- 128 **OLENTZERO KANTAK  
OYARTZUN'GOAK**  
Guztiok
- 129 *Emen eldu gerade,  
berri on batekiñ;  
gure «Enbajadore»  
Olentzerorekiñ.*  
Koplariak
- 130 *Olentzero joan zaigu  
mendira lanera  
bere uste osuan  
ikatz egitera.  
Aditu duanian  
Jesus jaio dela,  
laisterka etorri da  
parte emantera.*  
Guztiok Orra! Orra!
- 131 *Gure Olentzero!  
Pip'ortzian duela  
exerita dago,  
kapoyak ere battu  
arrautzatxuakiñ,*

- biar berendatzeko  
botilla-arduakiñ.*
- Koplariak:*
- 132 *Olentzero guria  
zorion gabia;  
jantziyak saldu dizka  
bere emaztiak.*
- Guztiok: Orra! Orra!...*
- 133 *Koplariak:*
- Olentzero inñundik  
eziñ degu ase:  
Osorik jan dizkigu  
amar zerri gazte;  
saieski ta solomo,  
makiña bat este...  
Jesus jaio da eta  
kontsola zaitezte.*
- Guztiok Orra! Orra!*
- 134 *(Urte-zarrekuak bezela kanta-  
tzen dira onelako bat edo bes-  
te:)*
- Dios te salve! Ongi etorri!  
-Gabon Jainkoak diela!  
Legearekiñ kunpli dezagun  
Eguarriren bezpera.*
- 135 *Gabon jaieko gabian  
gaude lengo legian:  
Guztiak emen eldu gerade  
guztiok umildadian.*
- Guztiok: Dios te salve!...*
- 136 *Ari naizela, ari naizela  
nekatu zaizkit ezpañak;  
itxe ontatik espero ditut  
bi errial ta gaztañak.*
- 137 *Ematekotan emazu,  
bestela ezetz esazu;  
ate-onduan otzak iltzera  
amak ez gattu bialdu.*
- 146 *SAN NIKOLAS' ETARAKO  
KANTA*
- 147 *San Nikolas txikia  
gure ganbaran azia  
-Gure ganbaran zer dago?  
-Andre Joana Maria.  
Ave ave Maria!*
- 148 *Dios te salve! Bakallo-jale!  
Bost eta sei amaika!  
Txorixorikan ez baldin bada,  
igual dela lukainka.*
- 149 *Guztiok:  
-Dios-te-salve! -Ongi etorri!  
-Gabon jainkoak diyela!  
Legiarekiñ kunpli dezagun  
San Nikolas-en pezpera.*
- 150 *(Urte-Zarrekuak bezela kanta-  
tzen dira onelako bat edo bes-  
te:)*
- Batek:*
- Samikolas-ek ekarri digu  
izar eder bat giyari;  
gaba ementxen igarotzeko  
ate onduan kantari.*
- (Inñauteritan len kantatzen ziran,  
Urte-Zarretan bezela, aietako  
bat edo beste:)*
- 151 *Eldu gerade urrundik,  
gaba bidian emanik,  
gaba bidian emanik eta  
iyote dela entzunik.*
- Guztiok: Dios te salve!...*
- 152 *SANTA AGEDARENAK  
(Ez dira Oyartzun'en kantatzen)*
- 153 *Santa Agedatan*
- Santa (i) Agedak ekarri digu  
izar eder bat giyari,*

*gaba olaxen igarotzeko  
ate-onduan kantari.*

Guztiok: *Dios-te-salve.*

*Santa Ageda-tan*

154 -Dios-te-salve! *-Ongi etorri!  
-Gabon Jainkuak diyela,  
legearekiñ kunpli dezagun  
Santa Ageda-ren bezpera.*

155 Koplariak:

*Agur etxeko jende leiala!  
Santa Agedaren eskea.  
Berak danontzat lortu dezala  
osasuna ta pakea.*

Guztiok: *Berak danontzat...*

156 Koplariak:

*Katana eta Panorini  
Itali'n dira erri bi;  
Ageda, nungo lorea ziñan  
iñork oraindik ez daki.*

Guztiok: *Ageda nungo...*

157 Koplariak:

*Aurpegiz eder Ageda,  
biotzez da ederrago;  
Kintziano nagusi jaun ori  
beraz zoratua dago.*

Guztiok: *Kintziano...*

158 Koplariak:

*Bañan Ageda kristaua izan  
ta bera jentil gaiztoa;  
«Nor(k) jentilduko (i) ote-dit neri  
nere Ageda gaxoa?»*

Guztiok: *Nor jentilduko...*

159 Koplariak:

*Aprodizi atsotzarra  
alegiñez saiatzen da;*

*bañan alegiñak egiñ arren  
len bezin garbi Ageda.*

Guztiok: *Bañan alegiñak...*

160 Koplariak:

*«Aprodizi, zuk ezin ba' dezu  
neronek dakit zer egin:  
makillazoka dana ebaindu  
gero burni goriakin»*

Guztiok: *Makillazoka...*

161 Atera beso-ezurak  
gero ebaki bular(r)ak.»-  
Neskatz gaxoak negarrik ez du  
bañan bai lotsa gogorrak.

Guztiok: *Neskatz*

162 Koplariak:

*«Bular ebakitzea biotzak  
biar lizuke galazi;  
ez al zinduan, aurr ziñala,  
amak bularrean azi?»*

Guztiok: *Ez al zinduan...*

163 Koplariak

*Alper-alperrik egiñak  
Kintziano'n alegiñak;  
aingeru batek agertu eta  
sendatu dizkio miñak.*

Guztiok: *Aingeru batek...*

164 Koplariak:

*«Zeruak orla sendatzen duna  
berriz zauritu nai dezu?  
Or(r)enbeste biotzgabekeriz  
lurra ikaraz daukazu.»*

Guztiok: *Orrenbeste...*

165 Koplariak:

*Len zauriz orain geyago,  
gaxoa azkenetan dago;*

-«Jesus maitea gertu naukazu  
zure (i) eztaietarako.»

166 *Koplariak:*

*Len Siziliako lore guztitan  
zan lorerik ederrena:  
orain zeruko izar-soroan  
dan izarrik argiena:  
berak iltzean sartu gaitzala  
zeruan zuzen zuzena.*

*Guztiok: Berak iltzean...*

## BIGARREN GEHIGARRIA

Euskaraz dugun eske-kopla bildumarik eder, luze eta zaharrenetakoa Isidor Baztarrika beneditarrak argitaratua da. Isidor Baztarrika ataundarrak «Ataungo Santageda kantak» izenburuko artikulua argitaratu zuen *Jaunaren Deia* aldizkarian (Urtarrila-Martxo, 1982, 72 zenbakia, 69-97 or.). Isidor Baztarrikak lan hau burutzeko Ataungo lau koplarien lau eskuidatzi zahar erabili zituen. Isidor Baztarrikak lan hori zehaztasun egokiz jazteko beste ataundar baten laguntza ere izan zuen, Jose Arratibelena. Bazekien eskuarteaz zeuzkan aleak ederrak ez ezik, garrantzitsuak ere bazirela, honelaxe esaten baitu bere lan-hasieran: «Oraingoan beste bat bakarrik argitaratzen dut, bainan, hori bai, luzea, garrantzitsua eta Atauen oso ezaguna: Santa Ageda kantak.» Garrantzia horren berri argiagoko ematen du geroxeago: «Ageri denez, bada hor gaia. Eske kanta eta kopla hauek, Euskal Herrian bai Oñentzaroz, bai Santagedatan, bai Samikolasetan, bai Donianetan eta bai... kantatuak, merezi luketa bilketa oso bat egitea, eta ondoren azterketa sakon bat. Horien balioa, lehen ere adierazi nuenez (ikus *Jaunaren Deia* 74, 67or.) alde askotatik azpimarra eta azter bait daiteke. Eta kontuan edukitzekoa da, kopla horietako asko gure herri literaturan zaharrenetakoak ditugula, Erdiarokoak alegia, Manuel Lekuonak zuzen azaldu duenez (ikus *Egan* 5-6 (1956) 12-15. or.).»

Ataun izan da, zalantzarik gabe, Euskal Herri osoan santa Ageda bezperan kopla zaharrak kantatzeko tradizio zaharra izan duen herrietako bat. Isidor Baztarrikak bere herriko usadioaren berri ondo jakinik, lau koplarien koplaisailak bateratu eta guztiekin sail osoago bat argitara zuen. Ataungo koplez gainera, bibliografia eta zehaztasun asko eman zituen Isidor Baztarrikak. Guk lau horietatik bat baino ez dugu eskuratu, Juan Arin Dorronsorok makinatua. Eskuidatzi horren transkripzioa da guk artikulua honetako bigarren gehigarrian egin duguna. Ezagutzen dugun kopla-bildumarik ederrena dela esan dugu. Zer-gatik? Gehienetan hogeitamar koplantik goragoko sailik nekez aurkitzen da. Ataungoak ehun ale inguru ditu. Baztarrikak osatua 119 aleko segida da. Kopla-bilduma honetan, gainera, agertzen den beste kopla gotikorik ez da inon

aurkitzen. Garai bateko Erdi Aroko koplak nola izan zitezkeen jakiteko ez dugu modu hoberik Ataungo sail honi erreparatzea baino. Erregeak, zaldunak, gortea... agertzen dira. Ataungo sail hau euskaraz dugun aberatsena denez gero, edizio kritiko bat merezi du, zalantzarik gabe. Dugun urrezko bitxitegi hau nola utzi aztertu gabe?

Gure oraingo helburu eta jomuga, ordea, apalagoa da, inolaz ere. Koplak sail bat dagoen dagoenean argitaratu nahi izan dugu oraingo aldi honetan. Baina nola argitaratu? Iturrian agertzen den bezalaxe, Goierriko euskarak dituen ezaugarriekin. Gerora, inork nahi badu euskara zabalago batean eman, baduke oinarri finkatua. Eman dezagun, kasurako, adibide bat. Har dezagun hogetalagarren koplak. Honelaxe agertzen da Juan Arinen kopian:

*Ostri altuan eder izarra  
errekaldean lizarra;  
etxe ontako nausi gazteak  
urre gorritz do bizarra.*

Guk modu berean transkribatu dugu. Ez dugu jarri, esaterako, Baztarririk bezala, «urre gorritz du bizarra.» Zergatik? Ataunen «du» adizkia «do» diotelako. Koplari ezagun bezain enblematikoenetako batek Goierriko euskararen kolorea hartzen du hango koplari batek kantatzen duenean. Badago besterik ere koplak honetan. Orain arte ezagutzen ditugun alderetan «zeruan eder izarra /./.../» eta abar agertzen dira. Hau da, «zeru» hitza eta ez «ostri».

Hegoalde zein Iparaldean aspaldi galdu zen «ostri» hitza zerua esateko. Hitz konposatuetan, ordea, agertzen da *ortz-/ost-* «ortzadar», «oskarbi» «ostarku» eta abarretan. Bere betean argertzea ez ote da zahartasunaren seinale? Ez ote gaude arkaismo baten aurrean? Guk baietz uste dugu.

Juan Arinek makinaz idatzia hona aldatu dugunean, zuzenketaren bat egin badugu, parentesi artean jarri dugu. Zuzenketa delako hori ez da besterik, gure ustean, makina-akats bat baino. Guk halaxe aldatzen dugula adierazteko, parentesi artean jarri dugu gure aldaketa. Hitzen bat ondo irakutzen ote dugun zalantzan bagaude, galde-marka jarri dugu parentesi artean. Hitz bera bi modutara agertu arren, guk jatorrizko erak errespetatu ditugu. *Kopelatu* eta *koplatu* aditzak era bietara agertzen badira, guk ere halaxe transkribatu ditugu.

Guk hemen eskeintzen dugun bilduma honetan badira bi ale Baztarririk transkribatu ez zituenak. Besteak bezain agerri ez direlako? Gure ustez ale horiek ere ederrak direnez gero, bilduma honetara jaso ditugu. Bi ale horiek 19 eta 69 zenbakia duten koplak dira. Baztarririk ale bat gaizki oker aldatu zuen:

6 *Santa (i) ageda andrea,  
Birjinearen amea,  
Birjinearen amea da ta  
bigarren ezelentea.*



Guk jatorrizkoan bezalaxe egin dugu eta «Birjinearen amea» jarri beharrean, «Birjinearen damea» jarri dugu.

Numerazioa dela eta eskuidatzian 92 zenbakirainoakoak agertzen ditu. Zenbaki batek ordea ez du azpian koplarik: hamairugarrenak. Horrexegatik guri kopla bat gutxiago ateratzen zaigu: lauetan hogeï eta hamaika.

1 *Sarrera.*  
*Bedeinkatue, alabatue*  
*da sakramentu santue,*  
*pekatuaren mantxarik (10) gabe*  
*Jesus da konzebitue.*

2 *Astigarraga, Erretererie*  
*irugarrena Oyarzun;*  
*Dios te salbe, nere lagunak,*  
*altu ta berdin erantzun.*

3 *Dios te salbe, nere lagunak,*  
*gau on Jainkoak diela,*  
*gau on Jainkoak diela eta*  
*biar egun on diela.*

4 *Sukaldeetan eder dirade*  
*apal berriak letonez;*  
*nagusi jauna, esan beza(i)gu*  
*asiko geran edo ez.*

5 *Otsa(b)ilaren (11) laugarrena da*  
*Santa Ageda bezpera,*  
*auzoetako galayak gatorz*  
*gaur zuek konsolatzerá. (12)*

6 *Santa Ageda andrea*  
*Birjiñearen damea,*  
*Birjiñearen damea da ta*  
*bigarren exzelentea.*

7 *Martirioa martirizaten*  
*irukiarren fedea,*  
*ark arekintxe irabazi zon*  
*zeru altuan sillea,*  
*zeru altuan sillea eta*  
*mundu onetan lorea.*

8 *Or goyen dago ermita*  
*Santa Ageda deritza;*  
*ango segore serbitzarientzat*  
*limosna biltzen gabiltza.*

9 *Santa Ageda, Santa Ageda*  
*Santa Ageda gaur degu,*  
*Santa Ageda gaur degu eta*  
*aretzek bialdu gaitu gu;*  
*kopela zaintzagula zu*  
*ongi artu gaitzatzula gu.*

10 *Gazte jendea pestaegunean*  
*plazara gera juntatu,*  
*plazara gera juntatu eta*  
*andik onera pasatu.*

11 *Uso txuriak zabaltzen ditu*  
*goizen goizetik egoak;*  
*etxe santu onek bedeinkatuak*  
*ateak eta leyoak.*

#### Baimena

*Etxe ontako jende noblea*  
*bear genduke koplatu.*

12 *Bayonan degu erosi*  
*piparrarekin espezi;*  
*nagusi jaunai eskatzen diogu*  
*kopelatzeke lizentzi (13).*

(10) Jatorrizkoan «pekatuaren mentxarik gabe» agertzen da. Guk Manzisidorrek bezala transkribatu dugu: «mantxarik gabe».

(11) Bastarririk «Otsabilaren» transkribatzen du. Jatorrizkoan -b-rik gabe agertzen da, baina Ataungo kanta famatu batean «Otsabilko, Otsabilko...» kantatzen zuten haurrek.

(12) Jatorrizkoan «Otxaillaren» jartzen du. Aldaera gurea da. Adizkiak direla eta «gatoz» izango da aoskera arrunta eta ez «gatorz».

(13) Jatorrizkoan «lizentzi» hitza agertzen da.

## NAGUSIARI

- 13 *Asiko banaiz, asi nedilla  
nagusi ori koplutzen,  
zaldie dago sillatzen,  
lau o(i)ntxoetan perratzen;  
etxe ontako nagusi jauna  
zaldiz da eleizeratzen.*
- 14 *Zaldiz da eleizeratzen,  
zillarrez ofrenderatzen,  
andik etxera datorrenean  
urre-sillan da esertzen.*
- 15 *Nagusi jauna berori  
kortean eztala agiri,  
bikorra sarri botatzen zayo  
beorren eskuko pirmari.*
- 16 *Eskuan eder bastoya,  
illean seda-kordoya;  
nagusi jaunak bere eskutik  
botako digu dobloya.*
- ETXEKO ANDREARI
- 17 *Baratzan eder txermena,  
ondotik gora lerdena;  
etxeo andrea koplak dezagun  
nagusiaren urrena.*
- 18 *Etxeko andrea zabala  
leku oneko alaba,  
bidean gatoz impormaturik  
limosnera zerala.*
- 19 *Zinta ederra petxean,  
ordena ederra etxean;  
etxeo andrak gustoa bado,  
pasea lezake kotxean.*
- 20 *Udaberrian zeña dan der  
lino txikiaren azie,  
etxe ontako etxeo andreak  
guztiantzat bado grazie.*
- 21 *Etxeko andrea gugana  
argie eskuan duala,  
esku batean ogi aundie  
bestean lukai(n)ka para;  
ori guztieri gutxi deizkiela  
buruan urdai baldea.*

- 22 *Gureztat ere zerbait bada ta  
beretzat berriz ondrea,  
etxe ontako etxeo andrea  
txit emakuma noblea.*

## NAGUSI GAZTERI

- Orain aurrera goazen  
nagusi gaztea koplutzen.
- 23 *Usok dira kotara,  
nere begiak lotara;  
nausi gaztea oraintxe goaz  
beror(r)en koplata.*
- 24 *Ostri altuan eder izarra,  
errekaldean lizarra;  
etxe ontako nausi gazteak  
urre gorritz do bizarra.*
- 25 *Eder soroan goldea,  
soñean kapa morea;  
etxe ontako nausi gazteori  
ondo gizontxo noblea.*
- 26 *Baratzan eder azea,  
gizon onaren trazea;  
zeori ede zerbait zerala (14)  
noblea dezu andrea.*
- 27 *Sentitzen z(a)itut sentitzen  
nola zabiltzen jeikitzen,  
beror(r)en ointxo politen otsa (15)  
sala berrin det aditzen.*
- 28 *Nagusi gazteori zaldune,  
urrezko ezpatadune,  
sema eiteko omen daukazu  
emazte parpalladune (16).*

(14) Hemen badakigu zer esan nahi duen:  
«Zerori ere zerbait zerala».

(15) Jatorrizkoan «otxa» dakar.

(16) Makinaz idatzitako jatorrizko testuan  
honeaxe dira lehen bi bertsoerok: *Nagusi  
gazte ori zaldunel Urrezko ezpata dunel Guk  
artikulu hurbila itsatsi egin dugu «gazteori» eta  
berdin «ezpatadune».*

29 *Txoria dago sasian,  
birigarroa esian;  
zu bezin gizon presturik ezta  
eguzkiaren azpian.*

#### ANDRA GAZTEA

30 *Eder intxoren kordena,  
alaxen degu ordena;  
andra gaztea kopla dezagun  
nausi gaztearen urrena.*

31 *Etxeko andrea orra ona  
zere gauzaren doi ona,  
Pazko goizean jantziko (d)ituzu  
zere soñean zazpi gona.*

32 *Txuri nabarra azpiko,  
gorri ederra gañeko,  
andrea zure parerik ezta  
plazea onratutzeko.*

#### ALARGUN GIZONEZKOARI

33 *Orain aurrera goazen  
(..N..) ori koplutzen.  
Elizan eder mantue  
seda piñez forratue;  
Orra bada ta (...N) ori  
alargun bedeinkatue.*

34 *Alargun orren etxean,  
santuak daude oltzean,  
guztiak lagun izango (d)ituzu  
eriotzako trantzean.*

#### EMAKUMEZKO ALARGUNARI

35 *Orain aurrera goazen  
(..N.) ori koplutzen  
Umildadean, karidadean,  
bizi zerade munduan,  
gero leku onen jarriko zera  
paraisuko koruan  
paraisuko koruan eta  
Birjiña Amaren ondoan.*

36 *Armarioan sague,  
kontrarioa katue;  
orra bada ta (...N) ori  
alargun bedeinkatue (17).*

37 *Or goyen dago errota,  
iriñe dauke igota;  
orra bada ta (...N.) ori  
Birjiña Amaren debota.*

38 *Etxaburuan goldea,  
aren gañean belea;  
orra bada ta (...N.) ori  
emakume txit noblea,  
pobreak ere egiten dute  
nun zeran zure galdera.*

#### MOTIL GAZTEK

39 *Iruñak bado zerkea,  
zerka barruan dendea;  
merezi do ta kopla dezagun (18)  
emengo gazte jendea.*

40 *Sasirik sasi birigarroa,  
pagadietan usoa;  
etxe ontako gazte jendeak  
aurten badute jasoa.*

41 *Preskorik zaude preskorik,  
ez al dezu ezkonasmorik?  
Goyerrri ontan ez tet barrunda  
olako mayorazgorik.*

42 *Zapata eder soñean,  
kapa berrie soñean;  
bosteun zezen jokauko di(r)e (19)  
zu ezkontzen zeranean.*

(17) Jatorrizkoan «Arramarioan sague  
/.../...».

(18) Jatorrizkoan «merezi do ta kopla ze-  
zagun» dakar.

(19) Jatorrizkoan: «bost eun zezen jokau-  
ko die».

- 43 *Zazpi dambolin, zor(t)zi gitarra,  
musikeroak amabi,  
oyen danaren danza aurretik  
ibilliko da berori.*
- 44 *Or goyen dago iturri,  
ura txorrotik erori;  
Orra bada ta (...N.) orrek  
amalau urre-txintxarri.*
- 45 *Amalau urre-txintxarrikin  
zazpi damaren eguzki,  
oyek guztiak ala izanik  
geyago ditu merezi.*
- 46 *Etxaburuan babea,  
erdie leka gabea;  
orra bada ta (...N.) ori  
ezta motille gabea.*
- 47 *Jira batera, jira bestera,  
nundinai zure pamea.  
Bost milla dukat malen ditula  
omen dakarzu andrea.*
- 48 *Udaberrian zeña dan eder  
ostoz jantzirik basoa;  
zure emazte egiten dana  
zorionean jayoa.*
- 49 *Eskuan eder eskuko seda,  
lipo zurie soñeko;  
orra bada ta (...N.) ori  
ona da lagun arteko.*
- 50 *Ona da lagun arteko eta  
are-area korteko,  
bosteun zaldun balio ditu  
dama bat kortejatzeko.*
- 51 *Eskil ondoan astoa,  
botatzen zayo lastoa;  
dama gazte bi engañatzeko  
etzera motil gaiztoa.*
- 52 *Sibili eta Granada,  
Katalunian gerra da,  
oyen artean pakeak eiteko  
Juan Antonio ori ona da.*
- 53 *Basoan eder ayena,  
beyen artean zezena;  
arra bada ta (...N.) ori  
urre-lirantxo txuxena (20).*
- 54 *Sala berrian jartzen danean  
amabi donzellarekin,  
ayetatik bat aukeratzean  
gelditu Jaungoikoareki(n).*
- 55 *Gerrian eder ezpata,  
etzaitzela espanta;  
Jaun zerukoak gorderik dauka  
zuretzat nes(ka)tx galanta.*
- 56 *Zelayen eder ardie,  
beltzen artean zurie;  
orra bada ta (...N.) ori  
lagunen ondragarrie.*
- 57 *Etxaburuan otea,  
auntzek jan dio puntea;  
(...N...) or(r)en maiteak  
bost milla dukat dotea.*
- 58 *Basoan eder gorosti,  
auntzak argana kutesi;  
Orra bada ta (...N.) orrek  
dama eder bat merezi.*
- 59 *Illaren bian kandelario,  
ogei ta lauen San Joan;  
bear doana etortzen bada,  
a ze motille dagoan.*
- 60 *Keiza txiki betea,  
aurten do bere urtea,  
merezi do ta kopla dezagun  
Josantonio orren partea.*
- 61 *Pagoak adarrak zabal(a)k ditu,  
usoak umeak an ditu;  
orra bada ta (...N.) orrek  
adiskideak baditu.*

---

(20) Jatorrizkoan ilunune bat dagoenez gero, Isidor Baztarrikak bezala transkribatu dugu.

- 62 *Errekaldean igela,  
preskoa dauke gibela;  
zu bezelako galai gazterik  
berri da errian eztala.*
- 63 *Ekaitz gogorra pasatu dezu  
ekaitz ondoa biguñe;  
Jose Antonio pama daukazu  
zerala artzai bikañe.*
- 64 *Errekatxoan arri limuri  
zaldi urdiñe igari;  
orra bada ta (.N) ori  
zazpi erregen kriadi.*
- 65 *Bestela gizon ona dalarik  
jekerea do nagie,  
baldin erregek jakiten bado  
orren tretaren berrie,  
sari batean bialduko lioke  
ezpatarekin zaldie.*
- NESKARI
- 66 *Sazerdoteak garbitzen ditu  
meza emateko eskuak;  
dama gazteak, esango ditugu  
zuen merezimentuak.*
- 67 *Illargiaren argitan  
artu gaituzte begitan,  
erregaloak bildu leizke  
dama gazte oyen bisitan.*
- 68 *Arantza bel(t)zak ostoa txiki,  
puntea zayo loratu;  
orain emendik bear genduke  
(.N..) ori koplatu.*
- 69 *Aran(t)za bel(t)zak ostoa txiki  
sagar gaztea urritsu (?) (21).  
Kristau umea mundu onetan  
apartatue zera zu.*
- 70 *Larrosa dago zabaltzen  
usai gozoa banatzen,  
asiko banaiz asi nedilla  
(..N..) ori koplutzen.*
- 71 *Txorie dago sasian,  
birigarroa esian;  
zu bezelako damarik  
ezta Ataungo errian.*
- 72 *Uretan eder antzara (22)  
(..N.) eder nun zera?  
Nun zera, bada, nun zera?  
Emen agiri etzera!*
- 73 *Etxe ontatik plazara  
Arleunez dago gal(t)zara,  
(.M.) ori aterako da  
jai aundietan dan(t)zara.*
- 74 *Konsejupetik plaza berri(r)a  
asko dauzkatzu begira,  
zu bezelako dama gazterik  
errin eztala berri da.*
- 75 *Usoak egoa(k) zabalak ditu  
lepo aldea lumatsu,  
orren aingeru txiki polita  
nundik agertu zera zu?*
- 76 *Basoan eder elorri,  
ondoan jota erori;  
Orra bada ta (.N) ori  
Ama Birjiña dirudi.*
- 77 *Eder basoan ezpala,  
nik ezin esan bestela;  
zure besoan lo egin leike  
paraisuan bezela.*
- 78 *Etzetik asi eta plazara  
arriz daukazu kal(t)zada  
(.N.) ori jai aundietan  
atera oi da dan(t)zara.*

(21) Jatorrizkoan: "Arantza belzak ostoa txiki/sagar gaztea urritsu/kristau umea mundu onetan/apartatue zera zu".

(22) Jatorrizkoan: «Uertan eder alzera/ (...N.) eder nun zera/ Nun zera bada nun zera/ Emen agiri etzera».

- 80 *Gonea dauke josteko  
jai aundietan jazteko,  
zazpi kriada balio ditu  
etxea gobernatzeko.*
- 80 *Damatxo gazte konponitue  
ori kolore gorrie,  
zure matralla iru(d)itzen zait  
krabeliñaren or(r)ie (23).*
- 81 *Udaberrian illarra berde,  
udaizkenean latza da;  
dama gaztea badaukazu  
besteak aña patxada.*
- 82 *Preskorik zaude preskorik  
ez al dezu ezkonasmorik?  
Goierri ontan eztet barrunda  
donzella ederragorik.*
- 83 *Baratzan eder lirio,  
usai gozoa dario;  
sei galai gazte ementxe gaude  
zu ikustea medio.*
- 84 *Zu ikustea gaur guretzako  
ze gusto biotzekoa!  
Len-bait-len bada agertu zait  
(..N) biotzekoa.*
- 85 *Lezoak or do Urbide,  
Pasaiak Erretererie;  
eraztuntxoan pasa liteke  
damatxo orren gerrie.*
- 86 *Eraztuntxoa diamantea,  
ukalondoa berdintsu (24);  
orren datatxo konponitue  
nork eramango zaitu zu?*
- 87 *Basoan eder albitze,  
aizeak dan(t)zan dabilte;  
erri ontako galai gazteak  
zure ondoan dabilte.*
- 88 *Palsoen batek engaña etzaitzen  
aren kontuan zabilta,  
Jaun zerukoak bialdu gaitu  
a(d)itzera ematen gabiltza.*
- 89 *Baratzan eder salbie,  
pipatxo kirten gorrie;  
orra bada ta (...) orrek  
illea dauka orie.*
- 91 *Illea dauke orie,  
besoa bizin lorie,  
edozeñentzat ezta egongo  
zure musu gorrie.*

---

(23) Jatorrizkoan: «krabelinaren or(r)ie».

---

(24) Jatorrizkoan: «ukalondoa bernisu».

## BI GEHIGARRI HAUEK DIRELA ETA OHAR ZENBAIT

Hitz laburretan zenbait ohar egin nahi nituzke, azkenik. Lehen gehigarriko 30 koplak antzekotasun handia du Iztuetak bere *Guipuzcoaco condaira edo historia* liburuan agertzen den harako *Sagarra eder, guezatéa/ Guerriyan ere ezpatéa/ Domenjon de Andía/ Guipuzcoaco erreguia* miragarri harekin. Iztuetak dioenez, Gipuzkoako tradizioan bizi zen jaun handi haren aipamena hamaboskarren mendetik zetorrena zen, Domenjon de Andia hau 1489 urtean hil baitzen. Gure koplak, ordea, Iztuetak dakarrena baino betegoa da neurri aldetik, «gezatea» eta «ezpatea» hitz hoskideei «alkatea» eransten zaielako. Gure sailekoa tradiziokoa da edo Iztuetaren liburutik moldatua? Guk tradiziokoa izatea nahi genuke, inolako zalantzarik gabe.

Lehen saileko 32 kopia Antonio Abadiaren gorantz an agertzen den hiru-garren saileko bigarren koplarekin bateratasun handiak ditu. Parrokoaren notak direla eta Azkuek Aezkoako «San Martinen Ataria» horretan agertzen diren modukoak dira (Ikus «Aezkera edo Petiriberro-inguruetakoko mintzaera» *Euskera*, VIII urtea, III-IV. zenbakia, 1927 bagilla-lotazilla, 249-254. or.). Gure lehen bilduma edo gehigarriko koplaren artean aparta iruditzen zait etxe-ko alabaren edo dama gaztearen 69. nota: *Emen eldu naiz bellari...! gabak eguna dirudi;! ...!:*. Kopia horretan *beillari* hitza ez da ez «velador, el que vela» ez «peregrino, romero». Kopia horretan J. M. Barandiaranek bildu zuen «rondador, mozo que anda rondando para galantear a las mozas» dugu (Ikus «Hitz batzuek eta beren esan-nahiak, gehienak Ataunen» *P. Lafitteri omenaldia* Iker-2, 1983). Ostaturako koplei dagokienez, 111 eta 112 Manuel Lekuonaren «Gabon-kantak» (*Egan* 1956, 5-6 zenbakia 9-44 or.) artikuluko Aiako Laurgaino ganbara batean aurkitu zen kanta zaharretik (1705) hartu da, edo tradizioan bizi dena? Tradizioakoa dela izateko badugu Martin Ugartek bildu zuen erretrau batekin antzekotasunik. Pentsatu daiteke, hala ere, Manuel Lekuonaren bildumatik ere har zezakeela Miren Pilar Lekuonak «Zorion aundi batez ba'degu esku-artearen XVIII gizaldi-asierako bat, polit askoa. Orain ogei-tamar urtetsu Laurgain'go ganbara batean aurkitua bera.» Ohar guzti hauezaz egin daiteke besterik, baina bego oraingoz horretan.